



Elkartasuna eta Saharako umeen irribarrea, eskutik helduta

Errefuxiatuen kanpalekuetako ume sahararrak Zaldibarrera etorri dira uda gure artean igarotzera. Hamabi neska-mutiko dira eta Olazarren hartu dute aterpe Hamadako Izarrak elkartearen laguntzagaz. Abuztuaren amaierara arte, 50 boluntariok behar duten guztian lagunduko diete umei. Aterpetzeko kideek ateak zabaldu dizkiote ANBOTOri. • 10



Parte hartu ANBOTOren argazki lehiaketan

Durangaldea • Martxan da ANBOTOren argazki lehiaketa. Herritarrek irailaren 15era arte dute aukera euren argazkiak ANBOTOren webgunean ipintzeko. • 12

Jaiak · Gehigarria



Mañariko, Mallabiko eta Garaiko jaiak



Garaiko Asto Trail lasterketako korrikalariek osorik egingo dute Oizko gailurreria

Mendi lasterketa • Zapatuan mendi lasterketa eta mendi martxa egingo dituzte Garain. Biak zenbatuta, 230 parte hartzailetik gora egongo dira irteera puntuan. Mendi lasterketan nobedade bat baino gehiago dago ibilbidean. • 27



“Gure komunitatearen parte gara; guk behintzat horrela bizi dugu kazetaritza”

Ttap aldizkariak UKTko Gorka Zabaleta eta ANBOToko Jone Guenetxea elkarrizketatu ditu tokiko hedabideen inguruko hausnarketa egiteko. Aiurriko Joni Ubeda izan dute gidari

TTAP • JONI UBEDA

Tokiko hedabideen garrantziaz eta garapenez hausnarketa egiteko eskarmentu handiko kazetari eta zuzendariak dira Jone Guenetxea eta Gorka Zabaleta. Tokikoak, urteen poderioz, euskarazko hedabideak izatetik kalitatezko kazetaritza eskaintzera iritsi diren ekimenak dira.

Jone, Anboto hedabideko zuzendaria zara, eta Tokikomeko presidentea izandakoa. Gorka, zu ezagun zaitugu Zumaiaiko Baleiken egindako ibilbideagatik. Egun, Urola Kostako UKT hedabide taldeko zuzendarietako bat zara. 2023an, Anboto zertan da, Jone?

Jone Guenetxea: Erronka berriei heltzen. Esparru batzuetan, Tokikom

euskarazko hedabideen bateragunearen eskutik. Tokikomen bidez denok batera heltzen gara nor bere esparruan heldu ezin daitekeen eremuetara. Gure esparruan, 2023ko helburuetako bat ikus-entzunezkoak webgunean indartzea izango da. Dagoeneko hasi gara horretan, eta webgunera begira aurrerapausoak eman gurako genituzke. Tokikomen eskutik gauza potoloagoak, inteligentzia artifiziala eta kudeaketan aurrerapausoak ematea. Hedabideei eta kazetaritzari buruz berba egiten dugunean, ematen du kazetariei buruz bakarrik berba egiten ari garela, baina hor estructuresa zabalagoa dago, publizitatea dago, kudeaketa dago, eta hor eragin-

korrak izatea ere garrantzitsua da proiektuari eusteko eta aurrera egiteko.

Horretan ari gara geroz eta modu profesionalagoan. Urola Kostan bateratze handia egiten ari zarete azken urteotan.

Gorka Zabaleta: Duela lau urte sortu genuen kooperatiba bat, Urolako Komunikazio Taldea. Sei hedabide batu ginen bertara, eskualdeko sei hedabide. Eta lau urte hauetan lan egin dugu, batez ere, barrura begira. Antolatzen eta egiteko moduak bateratzen. Bakoitza bere kulturatik zetorrelako. Baita esku artean genituen produktuak hobetzen ere. Baina 2023an gaude, jada aurrera begira. Badugu estrategia, bide-orria, bere baitan hartzen dituen bai marka, eraldaketa, produktu berriak...; batez ere, digitalizazioaren bidetik. Aplikazioa, buletinak eta abar. Eta bazkideztza formula berri bat, amankomuna. Herentzian jasotako harpidetza edo bazkideztza formula horiek kudeatu eta momentua da kooperatibak bere formula propioa edukitzeko.

Zuek biak, eta kasu honetan hemen gauden hirurak, kazetaritzaren bidetik iritsi gara bestelako ardurak hartzera. Udal hauteskundeak pasatu berri dira eta zuen hedabideetako audientzietan halako marka bat geratu da maiatzaren 28an, eta ekainaren 17an. Geroz eta konexio gehiago eta estuagoak

daude hartzailearekin. Sekulako garapena, kazetaritzaren ikuspegitik.

G.Z.: Bai, hala da. Alde batetik, logikoa da udal hauteskundeetan gure tokiko hedabideetan gorakada bat izatea. Hori logikoa da, eta, aldi berean, ona da; seinale ona da. Eta egia da, uste dut azkenengo bost-hamar urteetan aurrerapauso handiak egin ditugula. Zeuk aipatutako bidetik, teknologia berrien

Sinesgarritasuna lortzea asko kostatzen da, eta oso erraza da galtzea. Momentu batean galdu dezakezu, hanka sartzen baduzu barruraino

bidetik, gure webguneari esker, digitalizazioari esker, orain kapaz gara momentuan erantzuteko aktualitateari. Udal hauteskundeetan garatu genuen grafikoak erakusteko tresna. Uste dut lehiatzen ari garela hedabide handiekin.

J.G.: Udal hauteskundeak, esate baterako, guretzat aukera bat dira gure indarguneak adierazteko eta ezagutzera emateko. Asko prestatzen ditugun gauzak izaten dira, gainera. Erakutsi dugu, batez ere, webguneen bitartez eta sare so-

zialen bitartez, gauza txukunak egiteko aukera daukagula. Eta hori denon artean egin dugu, Tokikomen martxan ipini genuen web sistemaren bitartez.

Tokiko informazioa, euskarazko tokiko informazioa, lantzen hasi denetik, sinesgarritasuna irabazi du tokikoak. Eta hori erraz esaten da, baina ez da batere erraza izan.

J.G.: Bizitzen ari garen fake news-en eta desinformazioaren sasoi honetan, hedabide batentzat inoiz baino garrantzitsuagoa da sinesgarritasuna. Oso gauza delikatua da. Eta nik uste dut bereziki tokiko hedabideok zaintzen dugun kontua dela. Gure komunitatearekiko hainbesteko gertutasuna edukita, badakigu zer garrantzitsua den sinesgarritasuna, eta egunero defendatu behar den gauza bat da. Eta etorkizunean ere hedabideok geroz eta gehiago zaindu beharko genutkeen gauza bat da, desinformazioaren olatu horretan.

G.Z.: Sinesgarritasuna lortzea asko kostatzen da, eta oso erraza da galtzea. Momentu batean galdu dezakezu, hanka sartzen baduzu barruraino. Azken hamar urte hauetan, sare sozialen agerpenarekin, guk ere lekua bilatu behar izan dugu. Nik uste dut hor fase bat pasatu genuela nahiko despistatuta ibili ginena. Azken finean, sare sozialek dinamika bat dute oso perbertsoa

izan daitekeena guretzat. Eta azkartasun horretan edo lehiatu nahi izateagatik, askotan, kazetaritza ahaztu egin zaigu, kazetaritza zer den ahaztu egin zaigu. Orduan, uste dut horri buelta ematen ari garela.

J.G.: Uste dut bide horretatik jarraituz gero jendeak berriro ere baloratuko duela zer den kazetaritza eta zer ez den kazetaritza. Gure hedabideetan hori bizi dugu. Zurrumuruak edo albisteak zabaltzen dira, baina, gero, konturatzen gara jendea zain izaten dela ea albiste hori Anboton noiz ateratzen den.

Presioa ere nabaritu duzue eta seguru nago sasoi honetan, udal hauteskunde garaian, nabaritu izan duzuela. Baduzue eskarmentua, baina nola daramazue presio hori?

G.Z.: Udal hauteskundeak, nolabait esateko, lau urtean behin gertatzen den sukarraldia dira. Jada urte batzuk daramatzagu lanbide horretan, eta ikasi egiten da. Gehienbat, erlatibizatzen. Hautagaiak eta zinegotziak aldatu egiten dira, eta zu hor zaude. Ikusten duzu bilakaera zein den. Hori jakin behar da kudeatzen. Presioa. Nik uste dut kazetariak ere bizi dutela, ez da zuzendariari bakarrik dagokion kontu bat. Presioa, baina hauteskunde testuingurutik aterata esango nuke egunerokoan bizi dugula tentsio puntu hori. Tokiko kazetariok

oso gertu gaudelako gertaeretatik, gertaeretak protagonisten gertatzen diren ari zarenean. Erredakzio batetik, Donostiatik, Bilbotik edo ez dakit nondik beste distantzia bat daukazu, eta, alde horretatik, lasaiago lan egin dezakezu. Herrian bertan badakizu hanka sartzen baduzu hurrengo egunean kalea zapaldu orduko belarrondokoa jasoko duzula, eta oso ondo egin baduzu zorionak jasoko dituzula. Orduan, uste dut horrek zehurtiaz jokatzeko laguntzen digula. Eta bi aldiz pentsatzen informazio bat lantzeko garaian.

J.G.: Ildo horretatik, lehengo egunean erredakzioan berba egiten aritu ginen gai horretaz, gertutasunak daukan alde onaz eta txarraz. Eta ez bakarrik hauteskundeetan edo harreman politikoetan; harreman instituzionaletan eta udalekiko harremanetan ere bai. Igartzen ari gara komunikazioan herri txikienek ere geroz eta gehiago inbertitzen dutela, badakitelako komunikatzen ez dena ez dela proiektatzen euren komunitatera. Geroz eta ahalegin gehiago egiten ari dira udal eta herririk gehienetan.

Albiste potoloekin guri inoiz gertatu zaigu zehurtzia horren ondorioz klik asko izan ditzakeen albiste bat, interesa pizten duena, ez

publikatzea. Inoiz egin dugu hori, enpatiatik. Hizpide den pertsona horrekin berba egin dugulako. Enpatia hori eduki behar da jendearekiko eta gure komunitatearekiko. Gure komunitatearen parte baiera, ez dago komunitatea eta gero hedabidea. Gure kasuan, behintzat, horrela bizi dugu kazetaritza. Komunitate horren parte gara.

G.Z.: Guk hori oso gordin bizi izan dugu duela gutxi, Orioko gertaera matxista latz hartan. Nola landu den gai hori hedabide gehienetan. Hedabide handi horietan lotsagarria da noraino iristen ari den kazetaritza; kazetaritza, kakotx artean, eta guk nola bizi izan dugun eta nola landu dugun ikusita besteak nola ari ziren. Euste ariketa bat egin behar da. Pentsatu ondo zein izan ari zaren lanean eta zer min eragin dezakeen, zer alferreko min eragin dezakeen datu hori edo bestea publikatzeak. Eta uste dut hor oso-oso garbi ikusi genuela gure funtzioa zein den.

Hedabide orokorrak dira gureak eta joera bat bada hedabide askotan: kultura, kirola, politika eta gizartea maiz lantzen ditugu, baina badaude beste elementu batzuk: zientzia, ekonomia, industria... Esango nuke alor horietan motz samar gabiltzala. Salbuespenak salbuespen.

G.Z.: Lantalde txikiak baldin baditugu, denetik egitea tokatzen

da. Kazetariarentzat nik uste dut aberasgarria dela. Denetik idazten dugu, eta orain, gainera, hainbat formatutan. Baina, gero, gabeziak sortzen dira; denetik ezin da jakin, eta ekonomia eta horrelakoak bigarren mailan geratzen dira. Taldea oso txikia baldin bada, kazetari horren gustuak eragin handia izango du.

Hori gaintzeko modua da egiturak sendotzea, lantaldeak handitzea, profesionalizazioa, baina baita egiturak elkartuz ere.

J.G.: Tokikomeko jardunaldietan, askotan, datu kazetaritza buruz berba egiten da. Informazioa batu, grafikoak egin, hausnarketak, ondorioak atera... Horrekin lotura duten pertsonaia elkarrizketatu... Saretzen izeneko ekimenaren baitan eta EITBekin elkarlanean bagabiltza horretan lanean, ez baita erraza datu horiek herri mailaraino lortzea. Uste dut guk, tokikook, badauzkagula zailtasunak, gabeziak eta erronkak, baina badaukagula aukera handi bat. Eta elkarrekin gauzak egiteko kapaz baldin bagara, hainbat zailtasun edo ezintasun gaintu ditzakegula. Uste dut hori ari garela ikasten eta ikusten, eta uste dut horrek ilusioa pizten duela gure hedabideetan. Ikusten dut badagoela aurrera egiteko aukera bat.

Zuek biak iaz azaroan Katalunia aldean egon zineten tokiko hedabideen jardunaldi batzuetan. Oker ez banago, hara begira jarri nahi zenuten, eta, azkenerako, haiek izan ziren guri begira jarri zirenak. Kanpoko eragileek ere, BBCKo lantaldea hona etorri izan denean edo Tokikom jardunaldietan nazioarteko ekimenak gonbidatu ditugunean, Tokikomen inpresio ona jasotzen dute.

G.Z.: Kataluniatik inpresio horrekin itzuli ginen. Ikasteko gogoz joan ginen, eta gauza interesgarri batzuk ikusi genituen. Baina egia da azkenengo urteetan Tokikomen bidez aurrerapauso asko ematen ari garela, eta ikusten ari gara errazagoa dela elkarrekin aurrera egitea. Beste leku batzuetan elkartzen dira gauza puntualak egiteko, lobby lanak egiteko, baina ez, agian, kazetaritza bera lantzeraino. Kazetaritzaren ikuspuntutik elkarlan hori sustatzen ari gara, eta horrek haiengan harri-dura sortu zuen. Besteak beste, nola partekatzen dugun gure salmenta komertziala edo gure kudeaketa egiteko modua.

Harridura sortzen zien, eta inbidia pixka bat ere bai. Kosta egiten da denok ados jartzea gauza askotan, baina, behin ados jarrita, aurrerapauso handiak emateko aukera dago.

ABADIÑON, GEREDIAGA AUZOAN SALBADORE JAIK 2023

Abuztuak 4, barikua

- 20:00etan **Donien Atxa jaso eta txapligu hotsez jaiei hasiera ematea.**
- 21:00ak aldera **jai batzordeak EUSKAL OKELAZ egindako gisatua banatuko du** jai eremura doazen artean.
- 22:30ean, **Los Cazahuates** Noaindar taldeagaz mexikar erromeria.

Abuztuak 5, zapatua

- 12:00etan **Meza.**
- Meza amaieran **loren bedeinkazioa** egingo da. Lora bana hartu ahal izango dute mezara datozenek. Agertu nahi duten guztiekin, **familia argazkia** aterako da meza ostean ermitan.
- Ondoren, **Lander eta Jon Ander trikitilariekin Eguerdiko erromeria.**
- Goizean zehar **Paella txapelketa.** Paella ontziak 14:30erako aurkeztu beharko dira

Sariak:

- 1.- 50 euro, Eusko Label otzara eta txakolin kutxa bat.
- 2.- 40 euro eta txakolin Kutxa.
- 3.- 25 euro eta txakolin Kutxa.

*Gainerako parte hartzaileei hamarna euro emango zaie, paella auzoko plazan jaten badute.

- 19:00etan **Tortilla txapelketa.**

Sariak:

- 1.- 50 euro, gazta bat eta ardo kutxa.
- 2.- 40 euro eta ardo botila bi.
- 3.- 20 euro eta ardo botila bi.

*Saririk jaso ez duten guztiei ardo botila bana emango zaie.

*Izena ematea, 18:00etatik aurrera egin ahalgo da. Tortillak 20:00etan aurkeztu behar dira.

- 22:30ean, **Bertsolariak**

- Maialen Lujanbio
- Andoni Egaña
- Amets Arzallus
- Igor Elorza

*Gai-jartzailea, Maite Berriozabal

- 00:00etan **ERROMERIA LUHARTZ taldeagaz.**

Abuztuak 6, domeka

- 12:30ean, **Hamabi Harri taldeko**

ezpatadantzariak. Dantza saioa eta gero ohi denez, aureskua eta atzeskua dantzatuko dute.

- 13:00etan, **Igel txapelketa**

Sariak:

- 1.- 30 euro eta txakolin kutxa.
- 2.- 15 euro eta txakolin kutxa.
- 3.- 10 euro.

*Igel txapelketaren ostean, jai batzordearen txosnan kangrejoak banatuko dira.

- 17:00etan **Briska Txapelketa**

Sariak:

- 1.- 120 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain.
- 2.- 70 euro, garaikurrak eta botila bi xanpain.
- 3.- 50 euro eta botila bi xanpain.
- 4.- 30 euro eta botila bi xanpain.

*Parte hartzeko, bikoteko 8 euro ipiniko dute.

- 18:00etan **Umeen Jolasak**

- 20:30ean **Erromeria Ansorregi eta Larrañagaz.**

- 21:00etan, **Erromeri afaria.** Entsalada bertako produktu ekologikoekin, piperrak, Lumagorri oilasko izterrak eta postrea. Edariak, eta kafea. Afalostean erromeriak jarraipena izango du, gauerdia arte. 50. urteurren jaiak amaitzeko, txokolatada goxoa banatuko da.

*Afaria 12 euro izango da eta aurrez txartela erosi beharko da 626945623 telefonora deituta, plazak mugatuak direlako. Afaltiarren artean, Mahalaren otzara bat zozkatuko da.

Antolatzailea: Gerediagako jai batzordea.

ETXE LAGUNTZAILEAK

Abadiñoko Udala | Serafin tailerak | Eusko Label | Murueta nekazal turismoa | Larin elektrizitate etxea | Serratu itxiturak | San Antonio okindegia | Baque kafeak | Edurne arraindegia | Etxetxo Inmobiliaria | Ereña erretegia | Seijo pintura lanak

OHARRAK

- Aurten ere jaien aldeko errifa egongo da salgai jaietarako txosnan. Errifaren zozketa jaien amaieran egingo da. Sariak eskuratzeko epea urriaren 31an amaituko da.
- 2023ko Hamabi Harriren kamisetak salgai egongo dira Salbadore jaietan.
- Jai- batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen ezbarren erantzule egingo.

SALBADOREAK 50 URTE

1973-2023 • Bertsoa/Soinua/Dantza

"Herritarren parte hartzea aintzat izango duen irtenbide bideragarria" eskatu dute PERIarentzat

Durango Udalak "behin betiko irtenbidea adostera" deitu ditu Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango udalbatzak tren geltoki zaharreko lurrei buruz eztabaidatu du asteon. Gai ordenean, mozio bi. EAJk eta PSE-EEK aurkezturikoa bata, eta EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak aurkezturikoa bestea. Testu bien edukian, baziren adostasun zantzuak,

baina baita desberdintasunak eta ñabardurak ere. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak herri galdeketa emaitzak errespetatzea eta akordioarako oinarriari eustea eskatu dute. Jorge Varela zinegotziak esan du PERI proiektua aldatzea posible dela, "espekulatuzaileen mesederako barik

durangarren mesederako izan dadin". Eta EH Bilduko Iker Urkiak ere "bidean aurrera egiteko modurik egokiena akordioarako oinarria garatzea" dela iritzi dio. EAJren eta PSE-EEren testuak, osater, bestelako ikuspegi bat jaso du, eta adierazpen horrek egin du aurrera gobernu taldeko botoekin eta PPko botoekin. Onarturikoaren arabera, gobernu taldeak "behin betiko irtenbidea" adosteko mahai batean esertzera deitu ditu Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Trenbide Sarea. Zehaztu dutenez, irtenbide hori "ETSrentzat, Jaurlaritzarentzat eta gobernu taldearentzat bideragarria" izatea gura dute, eta azpimarratu dute hori dena "herritarren parte hartze prozesu batez" landu beharko litzatekeela, "durangarrek herri galdeketa adierazi zuten lez".



Tren geltoki zahararen eremuak honako itxura hau dauka gaur egun.

Andra Mariko lanetan 229.000 euro gehiago inbertitu beharko dituzte

Durango Udalak azaldu duenez, aurreikusitako bako patologia agertu dira arkupearen egitura



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Andra Mariko elizpea berritzeko lanek aurreikusitakoa baino hiru hilabete gehiago iraungo dute, eta itxarondakoa baino 229.000 euro gehiagoko inbertsioa izango dute. Durango Udalak azaldu du aurreikusitako bako patologia agertu direla zuzeko egitura, eta, horrenbestez, inbertsioa handitu egin beharko duela. Era berean, obraren kontratua aldatu egin beharko dutela azaldu dute udal iturriek. Elizpea berritzeko lanak urtarrean hasi zituzten, 620.824

euroko aurrekontuagaz. Horietatik 200.000 Eusko Jaurlaritzak ipini zituen. Oraingo patologiei 229.132 euroko gainkostua gehitu behar zaienez, kostu osoa 849.956 eurokoa izango da.

Durango Udalak 1676an agindu zuen Andra Mariko elizpea eraikitzea. Armadura Martin de Gabiria arotzak diseinatu zuen, eta harrizko zutabeak Domingo de Barraicua harginak. Elizpea 1681ean amaitu zuten. Herriko ikur eta topaleku garrantzitsua izan da mendeetan.

Frontoi irekiak, jolasgune estaliak eta komun publikoak, Durango aurrekontu parte hartzaileetan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Frontoi irekiak egitea, Garai jaurgiaren ingurua eraberritzea, Kurutzia gako iturria konpontzea, komun publikoak ipintzea, astronomia proiektu bat garatzea... Durango Udalak proiektu ho-

riek eta gehiago jaso ditu aurrekontu parte hartzaileen proposamenen zerrendan. Abuztuaren 20ra arte, herritarrek proiekturik gogokoenen artean bozkatzeko aukera izango dute. Durango bakoitzak hiru ideia aukeratu

ahal izango ditu, bakoitzari hiru puntu, puntu bi edo puntu bakarra emanda. Horretarako, udalaren parte hartze atarira sartu behar da. Bestela, Herritarrentzako Arreta Zentroan, Tabirako igerilekuan eta Turismo Bulegoetan egokituriko tablet gailuen bitartez eman ahal izango da botoa. Udal iturriek jakinarazi dute 800.000 euroko diru poltsa prestatu dutela aurrekontu parte hartzaileentzako.



Jolasguneak egokitzea da aurrekontuetan zerrendaturiko aukeratariko bat.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

2023ko uztailearen 21a
21. urtea - 945. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Luhartz, karaokea, paella jana eta herri kirolak Madalenako jaietan

Barikutik domekara bitartean, jaiak ospatuko dituzte Durangoko Madalena auzoan. Ekitaldi gastronomikoak eta musika izango dira egitarauko ekitaldirik parte hartzaileenak

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Askorentzat udako oporren atari den asteburu hau berezia izango da, aitzakia polita izango delako laneko atsedendia jai giroan hasteko. Durangoko Madalena auzoan behintzat bai. Auzotarrek aukera hori izango dute asteburu honetan. Auzo Alai elkarteak jaien edizio berri bat antolatu du

gaurtik domekarako. Ekitaldi ugari batu dute egitarauan. Azpimarragarrienak, honako hauek: gisatu lehiaketa, paella jana, nork bere etxetik ekarritako patata tortillekin egindako afaria, familia osoarentzako karaokea, Luhartz taldearen erromeria eta DJ Gabi musika jartzailearen saioa. Gisatu lehiaketan parte hartzeko, gaur

bertan hasten da epea izena emateko. Ekitaldi guztiak Madalenako ermitaren bueltan kontzentratu barik, beste hainbat lekutara ere zabalduko dituztela esan dute antolatzaileek. Plateruen plazara, eta Palentino eta Rincón taberna inguruetara, adibidez. Egitarau osoa eta ordutegiak anboto.org atarian kontsultatu daitezke.



Madalenako jaien edizio bat.



Dantza taldeko 35 umek bidaiatu dute Avilako lehiaketa jokatzera.

L'Atelierreko kideek domina ugari lortu dute Avilan

Dantzari durangarrek nazioarteko txapelketa batean parte hartu dute egunotan, beste 40 taldegaz batera

DURANGO • EKAITZ HERRERA

L'Atelier dantza eskolako kideak lana primeran egin izanaren sentipenagaz joango dira oporretara. Egunotan Avilan izan dira, bertan jokatzeko ari den nazioarteko dantza txapelketan, eta eskua bete domina dutela bueltatuko dira etxera. Edizio hau ixterako, jaialdia amaitu barik zegoen, baina, Oiane Az-

konizaga arduradunak azaldu duenez, eguazteneko saioan urrezko eta zilarrezko domina bana eta brontzezko bi lortu zituzten. Taldeko 35 neska-mutil joan dira Avilan lehiatzera. L'Atelierreko kideentzat lehenengo aldia izan da nazioarteko txapelketan parte hartzen. 40 herrialdetako dantza taldeak izan dituzte lehiakide.

BETI GERTU!

ELORRIA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
Tel.: 946 816 673
Bixente Kapanaga 19, beh.
48215, Iurreta

Erdella Mendi Taldeak eta Berrio-Otxoa Orfeoiak botatako txupinazoagaz hasiko dituzte jaiak Elorrion

Ferixa Nausikoak irailaren 1etik 9ra ospatuko dituzte Elorrion. 170.000 euro erabili dituzte jai egitaraua osatzeko



Jai egitaraua aurkezteko prentsurrekoko argazkia.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 2tik 12ra bitartean ospatuko dituzte Ferixa Nausikoak. Aurten 50 urte betetzen dituzten

herriko bi elkartetako kideek jaurtiko dute txupinazoa: Erdella Mendi Taldeko eta Berrio-Otxoa Orfeoiko kideek. "Guretzat oho-

rea da jaiak euren eskutik hastea", adierazi du Itsaso Basauri jaietako zinegotziak asteon emandako prentsurrekoan.

Santixako eta Arrazolako jaiak prest, atxondarrek udaz gozatzeko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udan ez da jai girorik faltako Atxondon. Asteburu honetan bertan, Santixa auzoko jaiak ospatuko dituzte. Jai hasiera bihar izango da, txopoa jaso eta paella txapelketagaz. Laja II eta Narbaiza trikitilariak eguna girotzen arituko dira. Uztailearen 25ean briska txapelketa eta umeen jolasak egongo dira. Eta beste ekintza gehiago ere egongo da uztailearen 24an eta 25ean.

Bestalde, abuztuan Arrazolako jaiak ospatuko dituzte, 11tik 16ra. Txopoa 14an sartuko duten arren, aurretik ere hainbat ekitaldi izango da. Abuztuaren 12an, mus txapelketa eta Fito Skinsen kontzertua egongo dira, eta abuztuaren 13an jubilatuen luntxa eta briska txapelketa. Abuztuaren 14an, *Ezkondo edo hil Arrazolan* antzezlanaren taularatuko dute bertakoek, eta Trikitio taldearen erromeria egongo da, besteak beste. Eta abuztuaren 15ean eta 16an, triki-bertsu-pintxo poteoa eta bazkaria, hurrenez hurren.

Jaietako egitarauari dagokionez, egitarau oparoa antolatuko dute Elorrion, urtero legez. "Adin eta gustu guztietako jendea asetzeko ahalegina egin dugu", esan du Basaurik. Bere esanetan, ohiko ekintzak eta tradizioz egiten diren beste hainbat ere egongo dira. Eta, zelan ez, musikak eta kontzertuek ere garrantzi berezia izango dute. Xabi Aburruzaga, Kai Nakai eta Esne Beltza izango dira oholtzan, besteak beste.

Bestalde, Iñaki Larrañaga Arriolako arduradunak azpimarratu du aurten nerabeei egokituriko gune bat egongo dela Ganondo parkean, eta etxeko txikieneztat haur parkea egongo dela, hiru egunez.

Horrez gainera, Julene Lazkano Elorrioko alkateak gogorazi du jaiak "guztienak eta guztientzat" direla. "Ez dugu eraso marxista, homofobo eta transfoborik onartuko, ezta beste edozein motatako erasorik ere", amaitu du, irmo.

Bideen garbiketa zerbitzua indartu dute Abadiñon

Traña-Matienako eta Astolako bideak garbitzen dabilta

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñoko Udaleko arduradunek garbiketa zerbitzua indartzea adostu dute, belar-sastraken garbiketan eta euri-uren sareetako hustubideen mantetze-lanetan metaturiko atzerapena lehengoratzeko. "Egiaztatu dugu lan batzuk ez zirela egin, edo ez zirela behar zen moduan egin, eta, beraz, garbiketa egin zuen enpresari konponbidea eskatu genion egoera lehengoratzeko.

Euren langileekin egingo dute errefortzu hori, eta guri ez zaigu gehiago kostatuko. Adi egongo gara kontratua betetzen dutela ziurtatzeko", azaldu du Mikel Urrutia alkateak. Pertsona bi dabilta lan horiek egiten, abuztuaren 18ra bitartean.

Bestalde, antzeko funtzioak beteko dituen beste pertsona bat ere arituko da, hiru hilabetez, Zelaieta-Muntsaratz inguruko bideak garbitzen.



Zelaietatik Astolarako zuzengunea.

"Jende gertukoa eta esker onekoa topatu dugu igerilekuko tabernan"

Taberna asteko egun guztietan dago zabalik, 11:00etatik 20:00etara. Batzuetan luzatu egiten dute itxiera ordua

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Mondragon Unibertsitateko Lein graduko hiru ikaslek hartu dute Atxondoko igerilekuko taberna, unibertsitateko proiektu modura. "Ekintzailtza gradu bat ikasten gabiltza eta kooperatiba bat sortzea eskatzen digute. Bederatzi lagunek enpresa bat sortu dugu eta proiektu horren barruan gauden hiruk hartu dugu taberna", azaldu du Aner Uribesalgo arrasatearrak. Dirua batzea da ikasle hauen asmoa, hurrengo ikasturtean Korea eta Indiarra joateko.

Bidaiarako finantziazioa lortzeko, buru-belarri dabilta lanean igerilekuko tabernan. Eskaintza zabala dute, eta, gainera, asteko egun batzuetan afariak, menuak eta errazioak ematen dituzte. Horrez gainera, kontzertu batzuk ere lotzen dabilta. Eguraldiak oraindino askorik lagundu ez dien arren, "pozik" daude izandako harretagaz. "Jende gertukoa eta esker onekoa topatu dugu Atxondoko igerilekuko tabernan. Oso eskertuta gaude", dio Uribesalgok.



Javier Echarri eta Aner Uribesalgo.

UDA KO 9. ARGAZKI LEHIAKETA

Igo zure argazkiak
irailaren 15era arte

Informazio gehiago
www.anboto.org webgunean

2 KATEGORIA, 4 SARI

DURANGALDEKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Smartbox-a.
- Publikoaren saria: Garai landetxean egonaldia.

DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

- Epaimahaiaren saria: Bluetooth aurikularrak Databost-en eskutik.
- Publikoaren saria: euskal produktuen otzara Errigoraren eskutik.

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Musika kontzertuak, Andikonako omenaldia, Urrezko Aizkora... Otxandioko jaietako

Otxandiarrek ekimenez beteriko astea daramate Santa Maña jaietan, baina aurretik geratzen dena ez da gutxiagorako

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Asteleheneretik martxan dira Otxandioko Santa Maña jaiak. Harrezkero, hamaika ekimen izan da egunero, eta asteburuan ere beste hainbeste gertatuko da. Esaterako, gaur arratsaldean bertan, II. Plazako Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte plazako pilotaleku

irekian. Kanporaketetan gertatzen den moduan, finalean ere ikusle asko batzea itxaroten dute antolatzailuek.

Bihar paella txapelketa izango dute eguerdian, eta musika gauean. Gozzue, Brigade Loco, J Martina eta Maixa & Malakias taldeek joko dute kontzertua. Dome-

karako, Andikonako omenaldia nabarmendu daiteke. Urtero legez, 1936ko bonbardaketan hildakoak gogoratuko dituzte. Segidan, Felipe Arrese Beitiaren bustoa inauguratuko dute elizaren ondoan. Arratsaldean, aizkolaririk onenak batuko dituen Urrezko Aizkora txapelketa lehiatuko dute plazan.

Txupinazoa

Astelehenean, 11Lore elkarteok botu zuten jaietako txupinazoa. Elkarteko kideak eta hainbat nazionalitatetako pertsonak batu ziren udaletxeko balkoian pregoia irakurtzeko. "Otxandio, gozatu jaietan, berdintasunean, parekidesunean, desberdintasunez harro, baina desberdinkerietatik urrun", adierazi zuten txupina piztu aurretik.



Danborrada hasteko prest, astelehenero txupinazoaren ondoren.

Otxandioko udaleku ibiltarietan 21 nerabek parte hartu dute

Txatxilipurdi elkarteak lehenengoz antolatu ditu Otxandion. Zazpi egunean zehar Lekeitio eta Zumaia lotu dituzte



Otxandioko nerabeak Txatxilipurdiren udaleku ibiltarian.

OTXANDIO • J.D.

Txatxilipurdi elkarteak udaleku ibiltariak antolatu ditu Otxandioko gazteekin, aurten lehenengoz. 21 nerabek parte hartu dute eta elkartekoak gustura daude udalekuek izan duten harreragaz. Zazpi egunean Lekeitiotik Zumaia joan dira eta bidean hamaika abentura bizi izan dute. Lekeitioan, Hiru Kurutze gaina igo eta 'Konkis eguna' ospatu zuten, askotariko probekin. Ondarroan, herriko arraun taldeagaz arraunean aritu ziren eta ginkana bat ere egin zuten herria hobeto ezagutzeko.

Ondarroan, herriko arraun taldeagaz arraunean aritu ziren, eta Zumaian padel-surfa egin zuten

Hurrengo egunean, Mutrikuko igerilekuan bainu bat hartu eta Debarantz jo zuten. Azken egunean padel-surfa egin zuten Zumaian. Horrez gainera, herririk herri hainbat hondartza bisitatu zuten.

Izurtzan batzar irekia egingo dute Gertufest jaialdia antolatzen hasteko

Datorren asteko martitzenean, uztaileak 26, batzar informatibo bat egingo dute aurtengo bigarren aldiko prestakuntza lanetan laguntzeko prest daudenei begira

IZURTZA • J.D.

Hilabete pasatxo falta da Izurtzako jaietarako, eta herriko eragileak murgilduta daude jaien prestakuntzan. Esaterako, Gertufest jaialdiaren prestakuntzan. Iazko lehenengo aldiaren prestakuntzan. Iazko lehenengo aldiaren prestakuntzan. Iazko lehenengo aldiaren prestakuntzan. Langa oso altu utzi zuten eta aurten ere maila bereko ekimena antolatu gura dute. Horretarako, herritarren laguntza eskatu dute. Uztailearen 26ko martitzenean bilera informatibo bat egingo dute Izurtzan, eta laguntzeko prest daudenak bertaratzera deitu dituzte. Batzarra 19:00etan hasiko da, Korralan, sasoi batean Azkonizaga jatetxea zegoen tokian.



Iazko Gertufest jaialdiko irudi bat.

Mañariko pilota eskolak atek zabalik ditu pilotan aritu gura duten gazteentzat

MAÑARIA • J.D.

Aurten, adin tarte zabaleko 20-25 neska-mutiko aritu dira Mañariko Artatzagan klubeko pilota eskolan. Orain ikasturte berriari begira daude eta klubera batu gura duten guztientzat

Pilotan zein palan aritu daiteke; aurten 20-25 gaztetxo ibili dira eskolan

atea zabalik dutela gogoratu dute. Esku pilotan ez ezik palan aritzeko aukera ere badago. Irailtik aurrera martitzenetan eta eguenetan izango dira entrenamenduak, 17:15etik 19:15era, eta interesa dutenak bertara joan daitezke informatzera eta izena ematera.

Hasi dute Andra Mariko jubilatuen bazkarirako izen-ematea Mallabian

MALLABIA • J.D.

Mallabian Andra Mari jaiak ospatuko dituzte abuztuaren zehar. Tradizioari etsiz, udalak jubilatuentzat antolatzen duen bazkaria izango da egitarauko ekimen bat. Doakoa da eta aurtengoa abuztuaren 16ko eguaztenean egingo dute, San Roke egunean, Kontzejuzarrean. Egun horri begira, udaletik jakinarazi dute hasi dela parte hartu ahal izateko izen-ematea. Abuztuaren 4ra arte egongo da horretarako aukera, Mallabiko udaletxean. Izena eman ostean arrazoi bategaitik edo besteagaitik azkenean bazkarira joan ezin denak sasoi abisatu dezala eskatu dute, antolaketa errazteko.



Okm: *batzen gaituen distantzia*

Egin zaitez anbotokide!

anboto
kide

anboto
kide

Anbotokideen
txokoa

Oporretara goaz, irailean
buelatuko gara zozketa
eta sari gehiagorekin.

Egin Anbotokide eta
gozatu gure zozketa eta
abantailez!

UZTAILEKO IRABAZLEAK

Alcamporen produktu lotea:

Estibaliz Katarain Azaldegia

Gosaria Xiberun:

Idurre Maortua Aiartzaguena

BBK Karpin fauna:

Ainara Urreta Jainaga

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaituzte Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Elkartasunak eta Saharako umeen irribarreek bat egin dute Olazarren

Errefuxiatuen kanpalekueetatik etorritako hamabi umeek Zaldibarren hartu dute aterpe, Hamadako Izarrak elkartearen eskutik. Abuztuaren amaierara arte egongo dira Olazarren



50 boluntario arduratuko dira Saharako umeen egonaldia antolatzeaz.

ZALDIBAR • EKAITZ HERRERA

Ume batzuk marrazkiak egiten topatu ditugu. Animalien izenak ikasten beste hainbat. Eta bana-ka batzuk zelai zabalean batetik bestera arineketan. Uda honetan Olazarretik igarotzen denak horrelako irudiak ikusiko ditu. Eta irudi-ekin batera, elkartasun dosi handi bat ere bai. Hamadako Izarrak elkartearen bitartekaritzagaz, dozena bat ume etorri direlako Saharako errefuxiatuen kanpalekueetatik Zaldibarrera, uda igarotzera.

Halako batean, *salam aleikum!* Bertan aterpeturiko umeek irribarre handi batez hartu dute ezohiko bisitaria, aterpetzeko kideek atek zabaltzeko eta ANBOTOri: "Laster bazkalduko dugu. Gaur entsalada eta haragi bolak ditugu. Eta arratsaldean

igerilekura joango gara", azaldu du Garazi Etxebarriak, Hamadako Izarrak elkartearen arduradunak. Beragaz batera, beste hainbat gazte dabil monitore zein sukaldari lanetan boluntario. 50etik gora. "Aljeriako lurretatik etorritako umeak dira. Osasun azterketak egiten dizkiegu. Medikuari bisita, dentistari bisita. Gainera, errefuxiatuen kanpalekueetatik irtetea onuragarria da eurentzat, han 50 gradutik gora izaten dute-eta udan. Hemen indarra batzen dute, gero hara indartsu bueltatzeko", azaldu du Etxebarriak.

Umeek bapo bazkaldu dute. Gustua hartu diote letxugari, tomateari. Gogoz hartu dituzte haragi bolak. Behin dena janda, igerilekura zer ordutan joango diren dute galdera nagusi. Egu-

nak halakoxeak dira Olazarren, eta egonaldia halakoxe izango da abuztuaren amaierara arte. Umeek orduan esango diote *laster arte* Euskal Herriari. Alde horretatik, Etxebarriak Saharako herriaren ikusgarritasuna aldarrikatzera deitu du: "Umeok Saharako herrialdearen enbaxadore dira gaur egun. Zoritxarrez, gerrate batean daude. Haien familiako kideek frontera jo behar izan dute. Eta garrantzitsua da umeak harreran hartzea, horrek, Palestinakoagaz batera, ikusgarritasuna ematen diolako jadanik ahaztuta dagoela dirudien gatazkari".

Umeek *shukran* esanez amaitu dute bazkaldua. Atxondoko igerilekura joateko irrikaz daude. Plasti-plasta egiteko, eta hara doanari irribarreak eskaintzeko.

Berrizko Udalak azken urteetako egituraketari eutsiko dio

BERRIZ • A.M.

Berrizko Udala hiru antolaketa arloren arabera egituratuko dute, azken urteetan legez: Antolakuntza, Hiritargoa eta Lurralde batzordeak izango ditu. Horrela erabaki zuten uztailean egindako ezohiko bilkuran. Bertan erabaki zen baita ere Orlan Isoirdek jasoko duen ordainsaria: 52.022,48 euroko ordainsari gordina hamalau pagatan; Isoird bera alderdi jeltzailearen bozeramailea izango da; EH Bildurena Josu Albizuri izango da, eta PSErena Carmen Marco.



Berrizko Udalbatza, Orlan Isoird alkatea erdian dagoela.

Gudari kalearen zati bat oinezkoentzat baino ez da izango da aurrerantzean

Gudari kaleko 1 eta 11 atarien arteko zatia itxi dute, 'Patata'-tik Zuentzat izeneko dendara doana. Zati hori baimenduriko ibilgailuek baino ezingo dute erabili



Zornotzako Gudari kaleko goiko zatia oinezkoentzat izango da.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako Udalak behin betiko zarratu du Gudari kaleko 1 eta 11 atarien arteko zatia, 'Patata'-tik Zuentzat izeneko dendara doan tartea, hain zuzen ere. Orain arte asteburuetan eta jaiegunetan zarratu izan dute Gudari kalearen gorengo zatia, baina aurrerantzean beti egongo da itxita. Halantxik jakinarazi dute udal iturriek. Ainhoa Salterain alkateak adierazi du "oinezkoei lehentasuna ematea" eta "kalitatezko espazio bat" sortzea dela neurri horren helburua. Izan ere, Zelaieta parkearen eta bertako zentroaren gertutasuna dela eta, oinezkoen kopuru handia batzen da inguru horretan. Horietariko asko adin txikikoak eta parkearen bueltan ibiltzen diren neska-mutikoak dira.

Bestalde, inguruko aire eta hots kutsadura murriztuko dela gaineratu du alkateak. Aurrerantzean, baimenduriko ibilgailuek baino ezingo dute kale hori erabili. Hala nola udaltzainek, larrialdi zerbitzuek, udal zerbitzuek eta taxiak.

ETS, Kalakan eta marmitako txapelketa Zornotzako jaien bigarren asteburuan

Zornotzarrek jaien zatirik luzeena dute aurretik. Barikutik eguaztenera arte izango dute zegaz gozatu herrian

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Joan zen zapatuan Zornotzako erdigunetik bueltatxo bat ematea nahikoa zen herritarren eta inguruko jai egaria zelakoa zen ikusteko. Kanean, musika alderik alde; ostalariak, jo eta su; ogitartekoak, barra gainera atera bezain laster desagertu. Bada, aurretik datorrena ez da gutxiagorako. Zornotzarrek

jaietako ekitaldirik jendetsueneraiko batzuk dituzte aurretik, gaurtik eguaztenera arte. Horien artean daude ETS zein Kalakanen kontzertuak, eta marmitako txapelketa eta umeen zein nagusien danborradak. Durangaldeko jairik luzeenak direnak eguaztenean amaituko dira, Mozorro Egunagaz. Egitarau osoa 23. orrialdean kontsultatu daiteke.



Mugimendu Feministak botatako txupinagaz hasi zituzten jaiak. UNAI OLASO

Santa Apoloniako industria eremua urbanizatzen hasi dira lurretan

85.000 metro koadroko industria lurzoruan 16 partzela eraikigarri sortuko dituzte



Udalak iazko martxoan onartu zuen Santa Apoloniako industria lurzorua urbanizatzea

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako San Apoloniako industria eremua urbanizatzen hasi dira asteon. Finkatu barik zegoen 85.000 metro koadroko industria lurzoruan 16 partzela eraikigarri sortuko dituzte. Era berean, berdegune berriak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak eta aisialdi gune berri bat egokituko dituzte. Lanek 3,27 milioi euroko inbertsioa eskatuko dute eta 18

bat hilabete iraungo dute, Iurretako Udalak jakinarazi duenez. Santa Apolonia aldi baterako enpresa elkarteak egingo ditu.

Udalak iazko martxoan onartu zuen Santa Apoloniako industria lurzorua urbanizatzea. Bertako enpresek espazio berriak behar dituzte euren jarduera garatzeko eta instalazioak hobetzeko, eta premia horri erantzun gura diote. 2009n hasi zuten urbanizazio proiektua, baina bertan behera geratu zen orduko krisi ekonomikoaren eraginez. 2019an ekin zioten berriro proiektuari, lurzorua %50etik gorako jabeekin Hitzarmen Batzordea sortu zenean.

Ugaitz Catalanen eta Beñat Airtzaren kontzertua gaur Garaiko plazan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Gitarra bana eskuetan hartuta, Ugaitz Catalan eta Beñat Airtza musikariek kantuan ipiniko dituzte gaur arratsaldean Garaiko plazara doazena. Trumoitte Kultur Elkarrekin antolatu du kontzertua. Emanaldia 19:30ean hasiko da eta antolatzaileek esan dute kantu liburuak banatuko dituztela bertaratzen direnen artean.

bizkaikoloreak
edit 4 - Iurretako Udala Saria

UCI NATIONS' CUP JUNIOR WOMEN

Argazkiak: Luis Valle Sánchez

2023ko uztaila
07/22 Abadiño· Abadiño 64,7 Km
07/23 Iurreta· Iurreta 72,1 Km

Iurreta Euzko Udala
Abadiño Euzko Udala
Bizkaia Foru Aldundia
GARA
ROGER BRIZ
Eiorriko udala
Smurfit Kappa

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Arrike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Irailaren 15era bitartean ipini daitezke argazkiak ANBOTOn argazki lehiaketan

Parte hartu gura dutenek 'www.anboto.org' webgunean ipini beharko dituzte argazkiak



lazko irabazlea, 'Kapadokya' (Gemma Uribelarrea).

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Bederatzigarren urtez, ANBOTOk bere irakurleen argazkilari senari bidea eman eta udako argazki lehiaketa martxan ipini du. Aurten ere arlo bitan aurkeztu daitezke argazkiak: eskualdeko argazkirik onena eta eskualdetik kanpoko argazkirik onena. Parte hartu gura dutenek www.anboto.org webgunean ipini beharko dituzte argazkiak, irailaren 15a baino lehenago.

Lau irabazle egongo dira. Epaimahaiak irabazle bi aukeratuko ditu, eta publikoak beste bi. Publikoaren saria webgunean egindako bozketan bidez erabakiko da, irailaren 16tik irailaren 22ra. Beraz, epe horretan botorik gehien jasotzen dituzten argazkiek jasoko dute publikoaren saria.

Sari interesgarriak

Sariak honako hauek izango dira: Smartbox bat eta Databostek emandako bluetooth aurikularrak (epaimahaiaren saria) eta egonaldi bat Garaiko landetxean eta Errigoraren otzara bat (publikoaren saria).

Lehiaketako oinarriak

Lehiaketako oinarriak dagokieenez, parte hartzaile bakoitzak gehienez lau argazki ipini ahalko ditu, kategoria bakoitzeko bi. Eta munduko edozein tokitatik ipintzeko aukera izango du. Horrez gainera, lehiaketan parte hartzeko aurkeztuko diren argazkiak aurtengoak zein edozein udatakoak izan daitezke. Beraz, udan argazkiak ateratzeko gonbita egiten dizue ANBOTOk.

Durungaldea asteen



Eneritz Agirre Atxondoko alkateak urtean 43.160 euroko soldata izango du

ATXONDO | Barikuan ezohiko osoko bilkura egin zuten Atxondon, udal antolaketari buruzko hainbat puntu jorrazteko. Bertan, hainbat kontuz aritu ziren, tartean alkatearen soldataz. Alkateak %100eko liberazioa izango du eta 43.160 euroko soldata gordina jasoko du. Lehenengo alkateordea Josu Barandalla izango da, eta bigarrena Joseba Urresti.

Bestalde, legegintzaldi honetan informazio batzordeetara joatearren zinegotzi guztiek 30 euroko dieta jasotzea onartu zuten. Eta 60 eurokoa osoko bilkurengaitik. Zenbateko hori handiagoa izango da alkateordeen kasuan; 50 euro batzorde bakoitzeko eta 80 euro osoko bilkura bakoitzeko.

Osoko bilkurak hileko lehenengo eguenetan izango dira, 19:00etan.



Durangaldeko politikariek "euskararen kontrako eraso" salatu dute Kontseiluak deitutako elkarretaratzean

DURANGALDEA | Eskualdeko ordezkari politikoak EAEko Auzitegi Nagusiaren aurrean mobilizatu ziren joan zen egunean, Auzitegi Konstituzionalaren epaia salatzeko. Euskalgintzaren Kontseiluak deitu zuen protesta ekitaldira, eta eskualdeko hainbat ordezkari politikok bat egin zuten. Elkarretaratzean eskualdeko alkate eta zinegotzi ugari egon zen. Besteak beste, honako hauek: EAJko Mireia Elkoroiribe, Iñaki Totorikaguena, Ainhoa Salterain, Orlan Isoird, Mikel Arruabarrena eta Mikel Garaizabal. EH Bilduko Julene Lazkano, Eneritz Azpitarte, Ainara Otxotorena, Aitor López eta Naiara Bidosola.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ESKELAK

946 816 558 • anboto@anboto.org

anboto.org/eskelak

Anbotokideek deskontua izango dute.





Mañariko jaiak 2023



MAÑARIKO
UDALA



EZ EZETZ DA!
JAIK ERRESPETUZ GOZATU!

Mañariko jaiak 2023

ABUZTUAK 11, barikua

20:00 Kontzertuak plazan: Ezta Ilen eta Añube.

ABUZTUAK 14, astelehena

13:00 Txupinazoa, kanpai hotsa eta Pitxitxiren igoera. Herriko trikitilariak momentua girotuko dute.

14:30 Herri bazkaria. Ostein: igel eta mus txapelketak.

16:00-18:00 Play Mai tailerra haurrentzat.

18:30 Gazte olinpiadak.

22:30 Kontzertuak: Delirium Tremens, Los Zopilotes Txirriaos eta DJ Pitxitxi. 4:00etatik 6:00etara doako autobusa Mañaritik Durangora, etenik barik.

ABUZTUAK 15, martitzena Andra Mari eguna

07:00 Garbiketa.

10:00 Kalejira txistulariekin.

11:00 Meza Kirikiño abesbatzagaz. Ondoren, dantzariak.

12:00 Pilota partiduak. Lau eta erdian: Etxebarria II / Elizalde. Binaka: Retegi Bi-Bernaola / Victor-Ladis Galarza.

12:30-14:00 Karts pista eta perkusio tailerra haurrentzat.

17:00 Karabina jaurtiketa. (Ateneo Cinegético Mugarak antolatuta).

19:00 'Tio Teronen Semeak - 'Freshcool' ikuskizuna.

20:30 Txistorrada.

22:45 Mariachi Imperial - Elegancia Mexicana.

ABUZTUAK 16, eguaztena, San Roke eguna Mozorro eguna, gaia: musika

11:00 Meza. Ondoren, dantzariak.

12:00 Paella txapelketa.

14:30 Paellak aurkeztu eta sari banaketa.

18:00 Briska txapelketa, Errose Bustintza kultur etxean. Oharra: aurretik izena eman behar da, 17:30etik 18:00etara bitartean, kultur etxe kanpoan, bikote kopurua mugatua delako. Bikoteak ailegaten diren orduaren arabera apuntatuko dira, mugara heldu arte.

19:00 Orkresta Elektrotuna.

22:00 Pitxitxiren agurra. Ondoren, DJ Gaztotxo gaua girotzen.

Kafraga kultur elkarteko kideek jaurtiko dute Mañariko jaiari hasiera emango dien txupinazoa, abuztuaren 14an

Elkarte sortu berriak kontzertuak ere antolatu ditu jaietarako



lazko jaietako argazkia Mañariko plazan.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañarian prest dute abuztuko jaietako egitaraua. Aurten, Kafraga kultur elkarte sortu berriak botako du jaiari hasiera emango dien txupinazoa, abuztuaren 14an. Aukera hori "ilusioz eta gogotsu" hartu dutela dio Paul Arana Kafragako kideak. Bera eta Jon Arzubia igoko dira udaletxeko balkoira pregoia irakurri eta txupina piztera.

Kafraga elkarteak indartsu hasi du bere ibilbidea. Ekainean Albo-kan Rolla jaialdia antolatu zuen, musika kontzertu, pilota partidu eta bestelakoekin. "Oso harrera ona" izan zuela eta dagoeneko datorren urtekoari begira daudela dio Aranak: "Albokan Rollak bigarren aldi bat izango du".

Ezta Ilen eta Añube

Jaietako egitarauan ere egin dute euren ekarpena Kafragako kideek.

Abuztuaren 11rako, txupinazoaren aurreko barikurako, Ezta Ilen eta Añube taldeen kontzertuak antolatu dituzte udalagaz elkarlanean, plazako eszenatokia muntatuta egongo dela aprobetxatuz. Historikoki, lagun talde batek U2 tabernan antolatzen zituen kontzertuak Mañariko jaien bezperetarako, eta orain, U2 itxita dagoenez, plazan emango diote jarraipena tradizio horri.

Delirium Tremens

Musika kontzertuei dagokienez, abuztuaren 14ko eskaintzak ere badi gatz eta piperra. Alde batetik, Delirium Tremens rock taldearen kontzertua izango da. Lau urteko ibilbide laburrean -1987tik 1991ra- sona handia lortu zuen talde mutrikuarra eszenatokietara bueltatu zen 2022an, eta euren birako geraldian bat Mañarian egingo dute. Euren

aurretik, Los Zopilotes Txirriaos taldeak joko du. Nafarrek hamahiru urteko ibilbidea dute dagoeneko eta bost disko kaleratu dituzte. Mexikoko doinuak punk-rockagaz eta folk ukituekin batzen dituzte. Hauen ondoren, DJ Pitxitxi girotuko du gaua. 4:00etatik 6:00etara doako autobusa ibiliko da Durangora,

Abuztuaren 11n Añube eta Ezta Ilen izango dira; 14an, Delirium Tremens eta Los Zopilotes Txirriaos

etenik barik. Jaietako musika eskaintza Mariachi Imperial taldeak eta Orkresta Elektrotunak osatzen dute, abuztuaren 15ean eta 16an, hurrenez hurren.

Bestalde, Tio Teronen Semeak dantza taldeak dantza eta umorea uztartzen dituen Fresh Cool ikuskizuna egingo du, plazan, abuztuaren 15ean. Egun berean, pilota partiduak ere egongo dira, pilotalekuan.

Maderas Zugazagoitia y Agirre S.L.

Aldegoiena Auzoa, 2-A · MAÑARIA
Tel/Faxa: 94 681 87 98 · zuagi@hotmail.com

HONTZA MUSEOA

DURANGALDEKO NATUR ZIENTZIEN MUSEOA

GORA MAÑARIKO JAIAK!

EBARISTO BUSTINZA KIRIKIÑO KALEA, 18
48212 MAÑARIA (BIZKAIA) / TL.: 94 621 65 55

www.hontzamuseoa.eus

GARATE

Mañondo Baserría, 10
Tel.: 946 815 600
48213 Izurtza

Mallabiko jaiak 2023



*Ondo pasatu
Andra Mari
jaietan!*



MALLABIKO UDALA

Mallabiko jaiak 2023

ABUZTUAK 14, astelehena Umeen eguna

11:30-13:00 Mallabiko trikitilariak kaleak girotzen

12:00-14:00 / 16:00-18:00 Umeentzako haur parkea herriko frontoian eta parkean

18:00 Apar festa parkean

19:00 Txupinazoa, Aitor Elordiren eskutik

19:00-21:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira Ondalan konpartsaren eskutik

19:30 Txokolatada plazan

21:30 Pilota partiduak Mallabia I Kirol Etxean Exposito-Arbizu // Mata-Erostarbe Elordi-Rezusta // Altuna III-Tolosa

* PILOTA PARTIDURAKO SARRERAK

Sarrerak abuztuaren 1etik 11ra salgai udaletxean

-Mallabiko langabe, ikasle, jubilatue eta pentsiodunentzat 12 €, justifikazio txartela erakutsita.

-Gainerako mallabitarrentzat 18 €.

-Partidu egunean leihatila 21:00etan zabalduko da eta sarrerek prezio bakarra izango dute, 25 €

23:00 Erromeria Laiotz taldeagaz, parkean

ABUZTUAK 15, martitzena Andra Mari eguna

11:00 Meza Jasokunde parrokan

12:30 Mallabiko dantzariak herriko frontoian

13:00-15:00 Erromeria ibiltaria EinGO taldeagaz

17:00 Tute txapelketa Kontzejuzarrear

*Izen-ematea: 10 euro bikoteko Sariak: 1. saria 120€ eta garaikurra 2. saria 100€ 3. saria 80€ 4. saria 60€

17:00 Mallabiko GIZONEZKOEN XXXIII. eta EMAKUMEZKOEN III. HARRI-JASOTZE SARIA Harri Txikia herriko frontoian

GIZONEZKOAK

100 kiloko zilindro zaharra / 100 kiloko bola

EMAKUMEZKOAK

62,5 kiloko zilindro zaharra / 62,5 kiloko bola

PARTE-HARTZAILEAK:

Claudio Iriondo (Irun), Paulo Azpiazu (Osintxu), Mikel Lopetegui "Urta" (Zarautz), Iraitz Arruti (Zarautz), Eneko Bilbao (Kortezubi), Jon Gisasola "Zelai V.a" (Mallabia), Petre Bulgarea (Palacios de Goda), Enrique Largo (Madril), Patricia Martin (El Ferrol) Karmele Gisasola "Zelai III.a" (Mallabia), Ainitze Zumeta (Zarautz), Lierni Osa (Zarautz).

SARIAK: 1. 900 € + GARAIKURRA eta TXAPELA, 2. 750 € eta GARAIKURRA, 3. 600 € eta GARAIKURRA 4. 500 € Gainerako parte hartzaileentzat 300 €-ko dieta. Dagoen marka hausten duenari, 200 €.

Sari hauek atxikipen fiskala izango dute

19:00 'Infoncundibles' kale antzerkia parkean, euria bada CIP-eko futbito zelaian

22:30 Eñaut Elorrieta parkean, euria bada herriko frontoian

ABUZTUAK 16, eguztiena San Roke eguna

12:00 Meza Jasokunde parrokan

11:00-14:00 PAELLA eta MARMITAKO lehiaketak.

Izen-ematea 11:30ean

*XXII. PAELLA LEHIAKETA eta X. MARMITAKO LEHIAKETA OINARRIAK:

Ez dago paella edo marmitakoa egiteko derrigorrezko osagairik. Marmitakoa 13:00etarako aurkeztu behar da eta paella 13:30erako, epaimahaiak dastatu eta sariak banatzeko. Talde bakoitzak bere sua ekarri beharko du, butanoa edo barbakoa, baina ezin da sua lurrean egin. Lehiaketa herriko plazan egingo da. Bazkarirako plater, edalontzi eta mahai-tresnak parte hartzaileek ekarri beharko dituzte

SARIAK: MARMITAKOA: 1.saria 110 € 2. saria 55 €

PAELLA: 1.saria 110 € 2. saria 55 €

14:00 Paella eta marmitako lehiaketako sari banaketa

14:15 Jubilatuen bazkaria Kontzejuzarrear

16:00 Iñaki Basabe jubilatuentzat Kontzejuzarrear

17:30 Kuadrillen arteko jolasak

Saria: pintxotarako 20 txartel

20:00 Mallabitar guztientzat txerri erre (2 pintxo, euro 1) eta sagardoa doan parkean

20:30 Erromeria Luhartz taldeagaz parkean

Ganadu garraioa
Juan Luis Irazola

Tel.: 609 794 504
943 170 651
48269 MALLABIA

Focs

Industrias FOCS, S.L.

TROKEL PROGRESIBOEN DISEINUA ETA FABRIKAZIOA
TRESNERIAREN FABRIKAZIOA
HARI BIDEZKO PIEZAK ETA DOITASUN HANDIKO BARNERATZEA

Goitondo poligonoa - Goikoa, z/g - 48269 MALLABIA - Tel.: 943 171 744 - E-mail: focs@focs.es

www.focs.es

metales OSMA

METALEN BERRESKURAPENA.
BIRZIKLAPENA
ETA KUDEAKETA

Tel.: 943 172 810
676 27 15 07

RECICLAJES METALÚRGICOS
JESÚS M.ª CORDÓN, S.L.

Goitondo-Goikoa poligonoa, z/g - P3A - 6/8 pabellona
48269 MALLABIA (Bizkaia)
Apdo. 181 • 48260 ERMUA
T./F.: 943 174 581 - M. 619 569 595

MAQUINARIA Y MULTIHUSILLOS, S.L.
Maymu

BURU ANITZEKO TORNUETARAKO
ORDEZKO PIEZEN ETA PIEZA OSAGARRIEN
BERRERAIKITZEA, KONPONKETA,
MANTENUA ETA SALMENTA

Pol. Ind Goitondo Behekoa -
naves 3 / 4 MALLABIA-BIZKAIA
Tel.: 94 657 00 94 - maymu@maymusl.com
www.maymusl.com

hierros arrate, s.a.

Goitondo Industrialdea, MALLABIA
Ermuatik Markinarako bidean
127 PK - 48260 Ermua
Tel.: 943 170 612 / 943 170 616
www.hierrosarrate.es

ZELAI

HILARRIAK
KANPOSANTUKO
LANAK

Zelai - Mallabia
zelai@atxitxe.net
Tel.: 656 706 468 /
656 706 467

"Daramadan urtearen ondoren, ilusioa egiten dit txupina botatzeak"

Aitor Elordi pilotariak botako du Andra Mari jaietako txupina; 27 urteko mallabitarrek Binakako eta Buruz Buruko Txapelketa nagusiak irabazi ditu aurten

MALLABIA • IGOR GALARZA

Aitor Elordi pilotariak botako du Andra Mari jaietako txupina. Partiduz jositako udan, mallabitarren aurrean jokatzeko aukera ere izango du, txupina bota osteko pilotari profesionalen jaialdian.

Lehenago ere egonda zaude udaletxeko balkoian.

Bai. Oker ez banabil, orain dela zazpi urte ere bota nuen txupina, pilotari profesional bezala egin nuen debuteko urtean. Daramadan urtearen ondoren, ilusio handia egiten dit txupina botatzeak.

Sanferminetan Labrit pilotalekuko zaleak kantuan hasi zitzaizkizun.

Ikaragarria izan zen. Ez nuen inondik ere espero eta une horrek barruak irauli zizkidan. Iaz Zabaletari abestu zioten, baina ez zitzaidan okurritu ere egin nigaz berdin jokatu zutenik. Partidua irabazi ostean Labrit osoa horrela ikusita, oilo-ipurdia ere ipini zitzaidan. Gainera, denok dakigu zelan egoten den Labrit sanferminetan, goraino beterik.

Ibilbide profesionalen burugogorra izateari aitortza lez ere hartzen dituzu txupinarena eta Labritekoa?

Momentu gatzetan burugogorra izateak eraman nau gaur egun bizitzen nabilen egoerara. Emaitzek laguntzen dutenean berdin lan eginez, eta lan eginda emaitzak ailegatzen ez baziren ere, lanean jarraituz.

Jubiletzera etorri gara elkarrizketa egitera, eta bidean herritar guztiak agurtu dituzu. Zelan bizi dituzu horrelako momentuak?



Aitor Elordi, Mallabiko udaletxeko balkoian.

Gustura bizi ditut. Egunerokoan ez dut herritar guztiekin egoteko astirik. Buruz burukoa jokatu nuenetik ez dut izan, adibidez, Jubiletzera etortzeko aukerarik. Normala da ordutik ikusi ez nauen jendeagaz partiduak gogoratzea, eta momentu politak dira horiek.

Zer dira andramariak zuretzat?

Herriko jairik garrantzitsuenak dira. Urriko jaiak ere baditugu, baina beharbada gazteei begira egiten diren jaiak dira horiek. Abuztuan denok parte hartzen dugu, zahar, gazte eta heldu. De-nontzat dira bereziak.

Izaten duzu festarako aukerarik?

Udan ez dut izaten nire lagunek

izaten duten aukera berdina parranda egiteko. Esaterako, uztailearen 21etik 31ra zazpi partidu ditut programatuta. Baina azken urteetan ahaleginu gara andramarietan giroa ipintzen eta urriko jaietan egoten den gazte giroa abuztura ekartzen.

Zer duzu gustuko jaietan?

Paella eguna azpimarratuko nuke. Kuadrillan batzeaz gainera, nagusiagoekin batzeko eta elkarregaz bazkaltzeko aukera polita da.

Badakizu balkoian zer esan?

Momentuan etortzen zaidana esango dut eta kito. Gainera, 19:00etan da txupinazoa, eta segituan jaitsi beharko naiz frontoira, partidurako takoak ipintzera.

DECOMESA INDUSTRIARAKO
DECOLETADOS Y MECANIZADOS, S.A. SOLUZIO INTEGRALAK
1994

Excavaciones BOLIÑA Mallabia - Bizkaia
• 629 340 410 •
• 618 954 280 •
excavacionesbolina@hotmail.es

HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN KUDEATZAILE BAIMENDUA EUX/008/04
HIERROS & METALES SAINZ
TXATARREN SALEROSKETA
Areitio gaina - 48269 MALLABIA • PK 58 - 48260 ERMUA
Tel.: 943 171 400
hierrossainz@hierrossainz.es
www.hierrossainz.es

URANGA Goitondo Ind. pab. 1 - MALLABIA
Tel. 943 17 97 17
Whatsapp 685 75 18 48

IBILGAILUEN KONPONKETA ETA MANTENIMENDUA
ondo pasau jaietan!

BETEARTE
Hondakin ez arriskutsuen zabortegia
BI-3342 errep. Areitio garaia MALLABIA pk. 38
Tel.: 943 170 307 - Faxe: 943 176 160
info@betearte.com www.betearte.com

RHEYDE lanabesak s.l.
✓ PERFILATUAK
✓ MOLDAKETAK
✓ BERRESKURATZEAK
Goitondo ind., 3. pab. - 48269 MALLABIA
184 PK - 48260 ERMUA
Tel.: 943 170 898 - rheyde@rheyde.com

GOIMEK
GOIMEK ere mallabiarrekin
Ondo pasa Andra Mari jaietan!
DANOBATGROUP
www.goimek.com

Gozzue eta Etxepe taldeen kontzertuak Garaiko jaietan

Donien Atxa jasota eta dantzarien emanaldiagaz hasiko dituzte Garaiko jaiak, uztailaren 24an

GARAI • J.G.

Aste osoko jaiak antolatu dituzte Garain. Uztailaren 24an Donien Atxa jasoko dute, 19:00etan. Ondoren, ezpatadantzariak azken entsegua egingo dute. Ondoren, Lumagorriren oilasko pintxoak banatuko dituzte, eta Basajaun taldearen erromeriagaz amaituko dute eguna. Santixau Egunean, uztailak 25, tradizioari eutsiz, kalejira egingo dute txistulariekin, dantzariekin eta agintariekin. Meza egingo dute Elizabarrin, 11:00etan, eta Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa egingo dute parrokiaraino. Agintariena eta Gernikako Arbola dantzatu eta gero, ezpatadantzarien saioa izango da. Arratsaldean errege-

lak dantzatuko dituzte, ohiko duten legez.

Eguaztenean, Santa Ana Egunean, kontrako bidea egingo dute.

Musika eskaintzari dagokionez, Joselu Anaiak eta Luhartz taldeen erromeriek ipiniko dute dantzan Garaiko plaza. Uztailaren 28an, Gazte Egunean, Otxandioko Gozzue eta Orioko Etxepe taldeek kontzertuak emango dituzte.

Ekitaldi herrikoiak

Ez da ohiko ekitaldi herrikoirik faltako Garaiko jaietan. Esaterako, uztailaren 26an tortilla txapelketa, uztailaren 27an umeen jolasak eta briska txapelketa, eta uztailaren 30ean mus txapelketa.



Iazko Garaiko jaietan Donien Atxa plazara eramaten.



HERRIKO JATETXEA

•••

San Migel plaza - GARAI

Tel.: 946 812 580





Garaiko Landetxea

San Migel, 10 GARAI
944 656 003 / 607 842 190
www.garaikolandetxea.com

Garaiko jaiak 2023

Uztailak 22, zapatua

09:00 III. Asto trail mendi lasterketa eta VI. mendi martxa.

Uztailak 23, domeka

14:00 Jubilatuen bazkaria.

Uztailak 24, astelehena

19:00 Donien Atxa jasotzea. Ezpatadantzarien azken entsegua eta Lumagorriren oilasko pintxoak dastatzeko aukera.

21:30 Erromeria Basajaun taldearen eskutik.

Uztailak 25, martitzena
Santixau eguna

10:30 Kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin.

11:00 Meza nagusia Elizabarrin. Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa parrokiaraino, Agintariena eta Gernikako arbola dantzatuta. Ondoren, ezpatadantzarien saioa.

18:30 Erregelaren erakustaldia eta trikitilariak.

Uztailak 26, eguaztena
Santa Ana eguna

10:30 Kalejira txistulari, dantzari eta agintariekin.

11:00 Meza nagusia Elizabarrin. Santiagoren irudiaren ohiko prozesioa parrokiaraino, Agintariena eta Gernikako arbola dantzatuta. Ondoren, ezpatadantzarien saioa plazan. Gizonezkoen eta emakumeen erregelak.

18:00 Tortilla txapelketa. Partaideek honako hauek eraman beharko dituzte: sua, arrautzak, olio, patatak, tipula eta gatza. (Sariak: 1. Amantala eta 80 euro / 2. 60 euro / 3. 40 euro).

21:30 Erromeria Irtzar taldearen eskutik.

Uztailak 27, eguena
Umeen eguna

11:30-13:30 / 15:30-18:30 Umeentzako jolas parkea frontoian.

17:30 Briska txapelketa. (Izen-ematea: 5 euro bikoteko). Sariak: 1. txapela eta 60 euro / 2. 40 euro / 3. 30 euro / 4. 20 euro.

19:00 Txistuman Elizabarrin.

Uztailak 28, barikua
Gazteen eguna

13:30 Gazteen poteo musikatua. Bazkaria eta ginkana.

19:00 Debrass Band elektrotzaranga.

23:00 Gozzue eta Etxepe taldeen kontzertuak.

Uztailak 29, zapatua

14:30 Herri bazkaria plazan.

22:00 Bertsolariak Elizabarrin: Unai Iturriaga, Sustrai Colina, Irune Basagoiti eta Iruri Altzerreka. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

23:30 Erromeria Joselu Anaiak taldeagaz.

Uztailak 30, domeka

11:30 Mus txapelketa (izen-ematea: 5 euro). Sariak: 1. txapela eta 60 euro / 2. 40 euro / 3. 30 euro / 4. 20 euro.

17:00 Pilota partiduak

22:30 Erromeria Luhartz taldearen eskutik.

Uztailak 31, astelehena
San Inazio eguna

11:00 Meza nagusia. Dantza saioa eta igel-jokoaren tokiko txapelketa. (Izen-ematea: 2 euro). Sariak: 1. 50 euro / 2. 30 euro / 3. 20 euro.



18:00 Asto proben erakustaldia: Landaluze (Peruri), Irazola (Mallabia), Imanol Erleaga (Mendata eta Anarketa (Garai).

21:30 Herri afaria (nork berea eraman beharko du).





TXIKITIK HANDIRA

Ordenatu beheko animalia hauek txikitik handira.













SUKALDEAN

Zenbat pizza zati egin ditzakezu dauzkazun osagaiekin?




DOMINOA

Marraztu dagokion irudia lauki zurietan.



ZEIN DA EGOKIA?

Beheko zati guztietatik bi ez dira egokiak. Zeintzuk bai?





Ray Fernández

MUSIKA DURANGO :: Uztailak 26

Troba berriaren adierazleeriko bat den Ray Fernández, Durangon

Udagirotu kultur egitarauak Ray Fernández trobadore kubatarren saioaz gozatzeko aukera eskainiko du uztailearen 26an. Sukaldari lana utzi, eta gitarra eskuan patxadaz ibiltzeko erabakia hartu zuen Habanan (Kuba) jaiotako musikariak, trobadore punk eta erromantiko baten antzera malekoian zehar ibiltzeko. Gandordun arima, abestien letra zorrotza eta kaletik egindako kritika dira Fernandezek ezau-

garri. Bera delarik kalea, espaloia ertza.

Troba berria bereizten duen abesteko modu kritiko eta bizkorren adierazleeriko bat da Ray Fernández. *La Yuca, El obrero, El gerente, Matarife* edo *Mamá, ando contento* abestiek kronika sozialak dirudite, bere bizitza kreatiboa garatu den errealitate horri egindako kritikak. Kontzertua Durango-ko Platerueneko terrazan izango da, 20:00etan.

Uztailaren 21ean

DURANGO madalenak

Argazki erakusketa.

Tortillak ermitan hartzea, 19:00etan.

Pregoa, 20:00etan.

Tortilla jana, 20:10etan,

DJ Gabik girotuta.

Familia-karaokea, 21:30etan. Ondoren, DJ Gabi.

ELORRIO musika

Soul Terror, 22:30ean, plazan.

GARAI kontzertua

Musika kontzertua: Ugaitz eta Beñat, 19:30ean, plazan.

Uztailaren 22an

ATXONDO santixauak

Txopo txikia apaindu eta jaso, 12:30ean, Santixa auzoan. Eguerdian, oilaskoz egindako paella txapelketa (aurkezpena, 14:00etan). Ondoren, bazkaria.

Bingoa, bazkalostean.

Laja II eta Narbaiza, egun guztian zehar.

Mus txapelketa, 19:00etan.

DURANGO madalenak

Txapelketa gastronomikoa: gisatua patatekin, 10:00etan.

Umeentzako jolasak, 11:30etan.

Meza, 12:00etan.

Trikitixa kalejira eta

Krskritinen saioa, 12:30etan.

Luntxa, 13:00etan.

Tute eta mus txapelketak,

16:00etan, Rincón tabernako arkupeetan. Igel txapelketa Palentinoan.

Herri kirolak, 18:00etan, ermitan.

Tabira musika banda + Tiktara taldea, 19:00etan, Plateruen plazan.

Luhartz, 21:00etan eta 23:30etan.

ELORRIO musika

O Sister!, 22:30ean, plazan.

Uztailaren 23an

ATXONDO santixauak

Meza nagusia, 11:30ean, Santixa auzoan.

Atxondoko Andasto dantza taldea.

Igel txapelketa, 13:30ean.

Briska txapelketa, 17:00etan.

Talka egur jokoak, 17:30etan.

Mozorro lehiaketa eta sari banaketa Txokolatada.

BERRIZ folklore jaialdia

Doña Tinisului (Errumania), 19:00etan, komentuan.

DURANGO madalenak

Paellaren prestaketak, 09:30etan.

Umeentzako marrazki lehiaketa, 11:00etan.

Paella jana, 14:00etan.

Txokolatada madalenekin, 17:00etan.

Dantzaldia, 18:30etan.

Jaien amaiera, 20:30etan.

ELORRIO dantza

Dantza garaikidea: 'La medida que nos ha de dividir' (Qabalum), 'Out of the blue' (LaRutan), 'Hellouses y Goodbyeses' (Wako), 'Through natura' (Sekai), 19:00etan, plazan.

Uztailaren 24an

ATXONDO santixauak

Patatak hobeto nork zuritu txapelketa, 19:00etan.

Ondoren, patata tortillarik onenarentzat sari berezia. Tortillekin afaria.

DJ Tatasa, ilunkeran.

Uztailaren 25ean

ATXONDO santixauak

Meza nagusia, 11:30ean, Santixa auzoan.

Porra txapelketa.

Saiheski pintxoak salgai Gernikako piperrekin

Mus txapelketa, 13:00etan.

Otzara baten zozketa, 14:00etan.

Uztailaren 26an

ELORRIO musika

Gaugiro: Aiert, 21:00etan, Portalekuan.

Uztailaren 27an

ABADIÑO musika

Fufu, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

ATXONDO ikastaroa

Sendabelarren destilazio tailerra (Oihane Lekunberri), 17:00etan, Axpeko Biezko baserrian (697 196 748 / 'liburutegia@atxondo.eus').

Uztailaren 28an

ELORRIO musika

Janus Lester, 22:30ean, plazan.

Uztailak 29an

DURANGO tailerra

Suk Aldatu: Pintxoei

buruzko ikastaroa (8-12 urte), 11:00etan, Merkatu plazan.

DURANGO zirkua

'Poi' (Balearretako Cía D'es Trio), 22:00etan, Aurora Abasolo parkean.

ELORRIO musika

Nico Wayne Blues Band, 22:30ean, plazan.

Abuztuaren 2an

ABADIÑO musika

Baby Shakes, 19:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

Abuztuaren 5ean

DURANGO antzerkia

'Troia' (Kamikaz kolektiboa), 20:00etan, Aurora Abasolo parkean.

Zinema

:: Durango ZUGAZA ZINEMA

• Oppenheimer

barikua 21: 17:40 / 20:30

zapateria 22: 17:15 / 20:45

domeka 23: 16:45 / 19:00

astelehena 24: 19:00

martitena 25: 16:45 / 19:00

eguztana 26: 18:30

• Barbie

barikua 21: 18:00 / 21:00

zapateria 22: 16:45 / 19:00 / 21:30

domeka 23: 17:45 / 20:15

astelehena 24: 18:00 / 20:15

martitena 25: 17:45 / 20:15

eguztana 26: 19:00

• Mafia Mamma

barikua 21: 18:00 / 21:00

zapateria 22: 19:30 / 21:30

domeka 23: 20:15

astelehena 24: 18:00 / 20:15

martitena 25: 20:15

eguztana 26: 19:00

• Elemental

barikua 22: 16:45

zapateria 23: 16:45

domeka 25: 16:45

Zornotzako jaiak 2023

UZTAILAK 21

13:00 Gazteen kalejira, Zornotzako gazteek antolatuta. Herritik zehar.

15:00 Gazteen arteko bazkaria. Ondoren, **bingo musikatua**. Zelaia parkean (euria bada, Amorebieta IV frontoian).

18:00 Kaleko musika: Dystopia elektrotzaranga. Luis Urrengoetxeatik hasita.

21:30 Txistularien XXIII. kontzertua, Udazken txistu taldeak antolatuta. Artista gonbidatua: Eñaut Elorrieta. Zelaia parkean.

22:30 Kontzertuak: La Furia eta Rebeca Lane. Zubiondo plazan.

UZTAILAK 22

10:00 3x3ko basketak, Zornotza Saskibalo taldeak antolatuta. Zubiondo parkean.

10:30 Marmitako lehiaketa, Zornotzako gazteek antolatuta. Zubiondo parkean.

11:00. Umeentzako bolo txapelketa, Zornotza bolo klubak antolatuta. Gure Kirolak bolatokian.

17:30 Ikuskizuna: Xaibor. Zubiondo plazan.

17:30 Kaleko musika: Mariachi Imperial. Zelaia parkean eta Luis Urrengoetxean.

18:00 Karaoke ibiltaria. Andra Mari plazan, Gernika plazan eta San Juan Kalean

20:00 Karaoke ibiltaria. Luis Urrengoetxean.

21:00 Karmenetako XI. Bolo txapelketa, Zornotza bolo klubak antolatuta. Gure Kirolak bolatokian.

22:30 Kontzertua: Benidorm orkestra. Zelaia parkean.

23:00 DJ jaiak: Show party DJs. Zubiondo plazan.

UZTAILAK 23

10:00 XLI. Xake txapelketa eta aldi bereko 50 xake partida, Zornotza Xake taldeak antolatuta. Herriko plazan.

11:00 Ontzi-modelismoaren erakustaldia, Bilbo Model Club-en eskutik. Jauregi barria.

11:00 Euskal Herriko artzain txakurren txapelketa, Atxate elkarteak antolatuta. Jauregi barriko parkean.

13:00 Musika: Gaztedi fanfarrea. Zezilia Gallartza goitiatik Sabino Arana raino.

16:00 Gazteen arteko piragua jaitsiera, Zornotzako gazteek antolatuta. Ibaizabal errekan.

18:00 Bizikleta eguna, Urgoiti iturria txirindulari elkarteak antolatuta. Zubiondo parketik Gure Kirolakeraino.

21:00 Bertso saioa: Nerea Ibarzabal, Onintza Enbeita, Aitor Mendiluze eta Sustrai Colina, gai-jartzaile lanetan Zornotzako Eta Abar bertso eskola. Zelaia parkean.

22:30 Kontzertua: Kalakan. Zubiondo plazan.

UZTAILAK 24

11:00 Zorhontzaren koreografia tailerra. Zelaia zentroan.

11:00-14:00/17:00-19:00 Umeentzako egurrezko jolasak. Herriko plazan.

17:00 Gazteen arteko Herri Kirolak, Zornotzako gazteek antolatuta. Larrako beheko eskolan.

19:00 Kale Antzerkia: "Zirkus, Behi zirkua bat bazen..." Malas Compañías konpainiaren eskutik. Herriko plazan (euria bada, Amorebieta IV frontoian).

22:00 Danborrada. Ibilbidea: Txiki Otaegi, San Pedro, San Miguel, San Juan, Nafarroa, Ibaizabal, Gudari, Herriko plaza.

23:00 Kontzertuak: ETS eta Zirkunik Bez erromeria. Zubiondo plazan.

00:00 Kontzertua: Puro Relajo. Zelaia parkean.

UZTAILAK 25

Egun guztian Aitite-amamen jaiak: aureskua, erromeria, bazkaria... Udabarri dantza taldeak, Udazken txistulari taldeak eta Triki Piu trikitilariak alaituta. Izena emateko: Nafarroa zentroan.

Goizean Baserritarren azoka, Enbak antolatuta. Zezilia Gallartza goitian.

11:00-14:00/17:00-19:00 Umeentzako egurrezko jolasak. Gernika plazan.

12:00-14:00 Umeentzako ekintza: Play system (4 urtetik aurrerakoentzat). Euskal Herria plazan.

12:00 Musika kalean: Triki Piu. Gernika Plazan, Andra Mari Plazan eta Zezilia G

16:00 Amorebieta-Etxanoko V. Duatloi Txikia, Amorebieta-Etxanoko Triatloi taldeak antolatuta. Zelaia parkean.

17:00-19:00 Dron tailerra (8 urtetik aurrera). Euskal Herria plazan.

20:00 Kale Antzerkia gaztelaniaz: "Dale Ramon", Trapu Zaharra konpainiaren eskutik. Herriko plazan (euria bada, Amorebieta IV frontoian).

22:00 Emanaldia: Zornotzako Musika Banda - Zornotzako ahotsak: Beñat Egiarte, Jaurne Gaminde, Eider Etxeandia, Patxi Gonzalez eta Eneko Larruzea. Zelaia parkean.

23:30 Soinu-inpaktu txikiko ikuskizun piromusikala, Pirotecnia Zaragozanaren eskutik. Jauregi barria.

00:00 Kontzertua: Kai Nakai. Zubiondo plazan.

UZTAILAK 26

11:30-14:00 Txitatoki Zirkus umeentzako zirkua azoka ikuskizuna. Zelaia parkean.

18:00 Umeen danborrada. Ibilbidea: Gudari, San Pedro, Luis Urrengoetxea, Larrabide, Karmen, Konbenio; Gregorio Mendibil, San Juan, San Miguel, Zelaia.

19:30 Gazteen arteko Play back lehiaketa, Zornotzako gazteek antolatuta. Zelaia parkean.

22:30 Kontzertua: Olatz Salvador. Zubiondo plazan

UZTAILAK 27 - MOZORRO EGUNA: HONDARTZA ZORNOTZAN

13:00 Gazteen pintxo-pote animatua, Zornotzako gazteek antolatuta. Herritik zehar.

16:30 Azken proba, Zornotzako gazteek antolatuta. Gure Kirolak frontoian (euria bada, Gure Kirolak frontoian).

17:30 Capoeira eta batukada tailerrak. Gure kirolak frontoian.

19:00 Zornotza 11Kolor eta Zorhontzaren agurra. Aniztasunaren kalejira. Gure Kirolak - Jauregi zaha r- San Miguel kalea - Herriko plaza.

19:30 Partehartzaileen erakustaldia: Flash mob-a Zorhontzaren koreografiagaz. Talde gonbidatua: **Vibr Com Acao (Brasil)**. Herriko plazan.

20:30 Kaleko musika. Burrumba elektrotzaranga. Luis Urrengoetxean.

22:00 Erromeria: Triki Piu. Zelaia parkean.

22:30 Kontzertua: 1990eko hamarkadako jaiak, Obk, Rebeca, Chimo Bayo, Fernandisco. Zubiondo plazan.

Otxandioko jaiak 2023

Uztailak 21, barikua

20:00 II. Plazako pilota txapelketako finala

22:30 Play-back gaua. Plazan

Uztailak 22, zapatua

11:00 Otxandioko bandagaz kalejira

Ondoren, Soka Dantza. Plazan

12:15 Dultzaineroen kalejira

12:30 Meza San Martinen

14:00 San Martinen, paella txapelketa

19:00 Skapaie elektrotzaranga, kalerik kale

22:00 Kontzertuak: Gozue, Brigade Loco, J Martina eta Maixa & Malakias

Uztailak 23

07:30 Diana eta kalejira

08:00 Sokamuturra

12:00 Meza nagusia

13:00 1936ko bonbardaketan hildakoei omenaldia. Andikona plazan

Ondoren, Felipe Arrese Beitiaren eskultura berriaren inaugurazioa

13:45 Limonada plazan

14:00 Otxandioko eta Araiako banden kontzertua. Plazan

18:00 Herri kirolak. Urrezko Aizkora Txapelketa

22:00 Erromeria Beranduegi taldearen eskutik

00:00 Agur Santa Marina

“Aberasgarria da ikustea geroago eta gazte talde gehiago 2000ko hamarkadako soinetara bueltatzen dabilela”

Sweet Rage taldeak 'Abian' diskoa argitaratu du oraintsu; Maldito Records zigiluagaz kaleratu dute hamabi abestik osatzen duten metal lana



Ruben Montoto, Dani Benito, Cris Ibarra, Edu Pérez, Aingeru Guerrero eta Christophe Tytgat.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Muted taldeko kide ohi Ruben Montoto, Edu Pérez, Dani Benito eta Christophe Tytgati Cris Ibarra eta Aingeru Guerrero batu zaizkie Sweet Rage proiektuan. Metal oinarri indartsuari ahots melodikoa batu diote oraingoa.

**Aste batzuk igaro dira 'Abian' kalera-
tu zenutenetik. Zelako harrera izaten
ari da?**

Oso pozik gaude. Gertuko batzuk harrিতa geratu dira estilo aldaketagaz, baina asko disfrutatzen dabilta. Sareen bitartez, ezezagun askok iruzkinak utzi dizkigute eta asko gustatu zaiela esan digute. Oso pozgarria da ezezagun batek, inongo konpromisorik barik, egiten zabiltzana oso ona dela esatea. Oso pozik gaude! Bigarrenagaz hasteko gogoagaz jada!

Hasierak gaxak izaten dira beti eta kostatu egiten zaigu geure burua ezagutaraztea. *Abian* diskoa entzuten duten guztiek gozatuko

dutela uste dugu, baina jende horrengana guztiarengana ailegatu behar dugu eta ez da erraza.

Zelan joan da grabazio prozesua? Non grabatu duzue?

Dena gure estudioan grabatu dugu, urte bian. Prozesu motela eta lan handia izan da, baina geuk egiteak pazientziagaz egiteko aukera eman digu. Emaitza ona lortu arte saio bakoitza errepikatzeko aukera ematen du eta hori abantaila bat da. Lana egiteko modu honeguz ez duzu estudio batek egunean duen kostuan pentsatzen, eta lana ondo egitea baino ez duzu buruan. Normalean, hiru-lau ordu grabatu ostean kalitatea jaisten hasten da; hilabete asko iraun duen prozesua izan da, baina ez gara inoiz nekatu. Ordu asko eskaini dizkiegu ahotsei, eta horretan Julio Veigak lagundu digu, taldetik gertu dagoen musikari bikainak. Behin dena grabatuta, Genovan (Italia) bizi den eta gure nahasketa eta masterizazio ingeniaria den Beñat Agirrerri bidali

genion; lau abestiren ondoren, Beñatek utzi egin behar izan gintuen, arrazoi pertsonalengaitik, eta prozesua gelditu behar izan genuen; Jaro Soundegaz (Praga) jarraitu genuen. Arretaz entzunez gero, ingeniari bien artean soinu diferentzia txiki bat dago, baina kasu bietan emaitza bikaina da.

“Talde handiekin lan egiten duen diskoetxea da Maldito Records, eta euren katalogoan egoteak mapan kokatzen gaitu”

**Maldito Recordsegaz kaleratu du-
zue. Zelan, ba?**

Behin grabazioa amaituta, singleak ateratzen hasi ginen, baita atea jutzen ere. Hiru bideoklip grabatu gintuen, abestiei eta taldeari entitate gehiago emateko; azken finean, ga-

txa da norbaitek kontuan hartzea ezer ere ez badaukazu. Ahalegin handia izan zen, baina horrela ipini ginen hartu-emanetan Maldito Recordsegaz. Gure proposamena gustatu zitzairen eta disko osoa kaleratzeko akordioa lortu genuen. Talde handiekin lan egiten duen diskoetxea da eta bere katalogoan egoteak mapan kokatzen zaitu.

**Muteden errautsetatik sortu da talde-
dea. Zelan sortu zenuten?**

Sweet Rage 2021eko urtarrilean sortu genuen, Cris gugaz batu zenean. Ruben, Dani, Edu eta laurok Mutedeko taldekide ohiak gara; taldea pandemian desagertu zen, 15 urteren ondoren, baina guk laurok ideia batzuk genituen eta lanean jarraitu genuen. Norabide finkorik barik hasi ginen eta, Cris agertu zenean, ideia zirenak benetako abesti bihurtzen hasi ziren. Crisen ahotsak sortzeko eta lan egiteko beste modu bat eman zion taldeari, doinuei askoz ere garrantzia handiagoa emanez. Hilabete

batzuk geroago, Aingeru agertu zen eta taldea osatu genuen. Baxulari akademiko gaztea da. Nahiz eta talde batean esperientziarik izan ez, ezagutza handia ekarri zion taldeari proiektua martxan ipintzeko. Laburbilduz, sei pertsona elkartu ginen abestiak sortu eta proiektu bat martxan ipintzeko gogoagaz.

Mutedetik Sweet Ragera jauzia handia izan da?

Bai eta ez. Crisen ahotsagaz argi ikusi genuen jarraitu beharreko bidea. Argi genuen ahotsa izan behar dela benetako protagonista, ahotsari bere lekua utzi behar geniola beti, baina hainbeste gustatzen zaigun oinarriko potentzia ere emanez. Oinarriak antzekoa izaten jarraitzen du, baina ahots melodikoagoa sartuta eta oihurik egin barik. Beste mundu bat dela ematen du, baina ez da hainbestekorako. Bestalde, Aingeru baxuagaz gehitzeak ikuspegi zabalagoa ekarri zuen, eta armonia eta baxu lerro askoz ere aberatsagoak.

Nu metala itzultzen ari dela esango zenukete?

Hala dirudi, ezta? Jaialdi handietan geroago eta nu metal talde klasiko gehiago ikusten ari gara. Deftones, Papa Roach, Disturbed, Slipknot... Baina aberasgarriagoa da gazte talde asko 2000ko hamarkadako soinu hartara bueltatzen ari direla! Uste dut nu metala inoiz ere ez dela desagertu, baina Bring Me The Horizon-en moduko talde arrakastatsu batek Linkin Park formula berrasmatu du eta nu metala bere lekuan ipini du berriro. Oso pozik gaude honeguz. Klasikoekin gozaten dut, baina oraindino gehiago proposamen berriekin. Harrigarriak dira!

Dagoeneko eman dituzue kontzertu batzuk. Gustura zaudete?

Kontzertuak ematea talde baten gasolina da, beharrezkoa. Konposatzea, grabatzea eta hori guzti hori asko gustatzen zaigu, baina zuzeneko emanaldiak beste kontu bat dira. Lan guztia eszenatoki batera eramanez eta ume baten modura gozatu behar duzu. Publikoak ere gozaten badu, sekulakoa! Aurten kontzertu onak ematen ibili gara Bizkaian, Santanderren eta Araban. Gipuzkoa eta Nafarroa falta zaizkigu! Udazkenerako data batzuk lotzen ahalegintzen gabilta, baina dagoeneko bigarren diskoa prestatzen hasi gara, poliki-poliki. Zerbait suertatzen bada, ederto, baina ez gabilta aktiboki gehiegi bilatzen. Lan egiteko tarreak ere gura ditugu.



Charo Lopez.

19 ekitaldi, San Agustinen 25. urteurrena ospatzeko

Charo López, Vanessa Goikoetxea, San Andreu eta Rafael Álvarez 'El brujo' arituko dira Durangoko kulturgunean

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Durangoko San Agustinek hemezortzi emanaldi antolatu ditu urte amaitsu bitartean, 25. urteurrena ospatzeko. Besteak beste, Charo López, Vanessa Goikoetxea, Rafael Álvarez 'El brujo' eta Yon Maiaren eta Andres Marinen *Yarin* ikuskizuna egongo dira hile hauetan. Mende laurdeneko ibilbidean, Durangoko sorkuntza artistikoa eta Durangaldeko artisten erakusleio legez izan duen garrantzia nabarmendu du Arantza Arrazola

koordinatzaileak, eta hori egitarauan ere nabaritzen da. Mar Mar antzerki konpainiaren *Arrainak Bihotzean*, Logela Multimediaren *Anbotoko Mari* eta Hotzikara dantza taldearen *Sintoniak* egongo dira ikusgai. Bestalde, Imanol Urbietta musikariari omenaldi legez 'Imanol oroitzu' ekitaldia prestatzen dabilta Herria elkarteagaz elkarlanean, urriaren 15erako.

Emanaldietarako sarrerak irailaren 5etik aurrera erosi ahal izango dira.

EGITARAUA

- 09/17 **Teneréko zuhaitza**
- 09/23 **Migratzaileak**
- 10/1 **Redada familiar**
- 10/7 **Sintoniak**
- 10/8 **Anbotoko Mari**
- 10/15 **Imanol oroitzu**
- 10/28 **Yarin**
- 11/4 **Verso a verso**
- 11/5 **Ondinaren magia**
- 11/9 **Ez naiz inoiz Dublín egon**
- 11/11 **Kuttune**
- 11/12 **Arrainak bihotzean**
- 11/18 **Sant Andreu jazz band**
- 11/24 **Judith Jauregi**
- 11/26 **Nevenka**
- 12/1 **Vanessa Goikoetxea**
- 12/3 **El lago**
- 12/17 **El cómico**
- 12/27-30 **Maluta**

Orain dela mende bateko musika alaiaren lekukotza, Elorrion

O sister! vocal jazz taldeak kontzertua emango du zapatuan, 22:30ean, Musikaire jaialdiaren barruan

MUSIKAIRE • A. M.

O Sister! taldeko kideek joan den mendeko 20ko eta 30eko hamarkadetako jazz doinuak jorratzen dituzte. Zapatuan kontzertua emango dute Elorrion, Musikaire jaialdiaren barruan, 22:30ean. Taldea 2008an sortu zuten eta swing, jazz eta pop doinuak uztartzen dituzte. Bestalde, gaur rock eta soul doinuek hartuko dute Elorrioko plaza; Soul Teller artistak eta bere taldeak kontzertua emango dute bertan. Eta domekan dantza garaikide ikus-

kizunak egongo dira. 19:00etan hasita, lau taldek emanaldiak egingo dituzte plazan: Qabalum, LaRutan, Wako eta Sekai taldeek *La medida que nos ha de dividir*, *Out of the blue*, *Hellouses y Goodbyeses* eta *Through* natura ikuskizunak egingo dituzte, hurrenez hurren. Azken urteetan ohitura bihurtu da dantza garaikide ikuskizuna Musikaire txertatzea. Elorrioko kultura jaialdia borobiltzeko, Janus Lesterrek kontzertua joko du uztailearen 28an, eta Nico Waynek 29an.



O Sister! taldea.

Gai librean

Isilaraziak XV

Jakin badakigu Artearen Historian zehar emakume artistak egon direla. Badakigu gehienetan ezagutzen ez ditugula. Ez dugula beraien izenik ezagutzen eta are gutxiago beraien irudirik. Baina batzuetan bizitzak, errealitateak, sorpresa pozgarri batzuk eskaintzen dizkigu.

Gaur, sorpresa pozgarri horretako bat aipatu nahi dut. Eta, horretarako, 900 urte atzera egin behar dugu historian, eta, zehazki, Germaniako Erromatar Inperio Santura bidaiatu behar dugu, gutxi gorabehera gaurko Frankfurtera. Hiri horretako abadetxe bat imajinatu dezagun, XII. mendekoa. Iluna, leiho txikiekin, horma zurruneekin eta hezetasunez bete. Bertan abade eta moja batzuk (bai, gizon eta emakumeak batera bizi ziren garai horretan abadexteen) kandlez argitutako areto txiki

Baina, batzuetan, bizitzak, errealitateak, sorpresa pozgarri batzuk eskaintzen dizkigu

Bekataria! Zein izango ote zen egin zuen bekatua? Ziur aski ezer gutxi, bere burua erretratatu, adibidez

batean lanean ari dira. Mahai batzuetan pergamino handiak dituzte zabalik, eta kalamuak pinturan sartu eta gero, pergamino horiek irudiztatzen, argitzen, pasatzen dituzte orduak. Pazientzia eta teknika handiko lana da. Ez du akatsik onartzen eta bista eta pulsu ezin hobeak behar dira. Artista horien artean, Guda izeneko (eta izena euskaraz esanahi ezin

hobea dauka pertsona honentzat) moja bat dago. "D" letra irudiztatzen ari da eta, bat-batean, zerbait okurritu zaio. Bere burua margotuko duela letra horren barruan. Gainera, eskua igota dauka, irakurlea agurtzen egongo balitz bezala. Masailak gorri ditu, lotsaturik balego bezala. Eta hori gutxi balitz, bere inguruan esaldi hau idazten du "Guda, pecatrix mulier scriptit & pinxit hoc libris", hau da: Guda emakume bekataria liburu hau idatzi eta margotu zuen. Bekataria! Zein izango ote zen egin zuen bekatua? Ziur aski ezer gutxi, bere burua erretratatu, adibidez.

San Bartolomeoren orduen liburu honetan (Frankfurteko estatuko bibliotekan gordetzen da) azaltzen da, beraz, emakume artista baten lehen erretratu bat. Hori bai, bekatua egin eta gero. Emakumea izanda, lan egitea ere bekatu delako kasu batzuetan.



Garazi Arrizabalaga Cabrerizo
Durangoko Museoa



Umeen arteko partidu bat plazako pilotalekuan.

Pilotaleku ireki eraberritua pilotari gazteen plaza bihurtu da Otxandion

Ekainetik hona 30 bat umek astero jokatzen dituzte partiduak plazako pilotaleku irekian. Iluntxo pilota kluba herrian pilota biziberritzeko egiten dabiren ahalegina fruituak ematen dabil

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Iluntxo pilota kluba etorkizun oparago baterako haziak ereiten dabil. Umeak erakartzeko, plazara atera dute pilota eta oso erantzun ona izan du. Zazpitik hamalau urtera arteko 30 gaztek asteko hainbat egunetan jokatzen dituzte partiduak. Eta bai gazteak bai euren gurasoak gustura dabiltzala dio Iluntxoko kidea den Beñat Gorospek: "Partidu gehiago antolatzeke eskatzen digute". Irailean helduko da ordua orain ereindakoa jasotzeko. Plazan dabilen umeetariko asko ez dabil pilota klubean, eta horixe dute esperantza klubekoek, eurretari batzuk klubera batzea eta ikasturte berriari indartsuago ekitea. Gainera, ikasturte berri-rako Ainhoa Ruiz de Infanteren

laguntza ere izango dute. Herriko pilotaririk onena klubean egotea beste amu bat izan daiteke umeak erakartzeko.

Azken urteetan garai konplikatua bizi izan dituzte. 2019an kolpe handia hartu zuten, pilota klubaren jardunean berebiziko garrantzia izan duten lagun bi hilabete gutxiren barruan hil zirenean: Josetxu Garaigordobil eta Iñaki Uriarte. Beste kide batzuekin batera, biak "figura inportanteak" izan ziren Iluntxoren bilakaera ulertzeko. Hain inportanteak ezen urte hartako santamañetan omenaldi bat prestatu zutela plazan Garaigordobil eta Uriarte gogoratzeko.

Urtebete geroago heldu zen pandemiak oraindino oztopo gehiago jarri zion zuzendaritza berriren

eta jarraitu beharreko norabidea erabakitzen ari zen klubari. Arrazoi bategaitik edo besteagaitik, hainbat pilotari gazte herritik kanporako pilota klubetara joan zen.

Baina garai haiek gainditu zituzten eta orain itxaropentsu begiratzen diote etorkizunari. Plazako pilotalekuak badu zerikusirik loratzere berrian. Udalak iazko ekainean inauguratu zuen plaza eraberritua eta Iluntxo etekina ateratzen ari zaio. Bigarren urtez, Plazako Pilota Txapelketa antolatu du nagusiei bagira, eta finalak gaur arratsaldean jokatuko dira. Ikusmina eragiten duen txapelketa da eta jende dezente batzen da partiduak ikustera. Umeek atariko partiduak jokatzen dituzte eta asteko beste egun batzuetan ere aritzen dira.



Zazpitik hamalau urtera arteko gaztetxoek hainbat partidu jokatzen dute astero.



Garaigordobil eta Uriarte gogoratzeko 2019an egindako omenaldiko irudia.



Erdian iazko irabazlea, Nienke Vinke herbeheretarra. **LUIS VALLE SÁNCHEZ**

Bizkaikoloreak juniorretako ziklistarik onenak batuko ditu Abadiñoko eta Iurretako lasterketetan

Zapatuan eta domekan lasterketa bana egongo da; parte hartuko duten 26 taldeetatik bost euskaldunak dira; AEBetako, Kanadako, Portugalako eta Frantziako selekzioak ere etorriko dira

TXIRRINDULARITZA • J.D.

Bizkaikoloreak Sariak laugarren aldia egingo du asteburuan, eta, aurreko aldietan legez, junior mailako txirrindulari eta talderik onenak batuko ditu. Guztira, 160 txirrindularik parte hartuko dute, 26 taldetan banatuta. Eurretari bost euskaldunak dira: Sen-Berata-Iurreta, Bioracer Auribus, Nafarroa-Ermitagana, Team Zatika eta Mix Zuk-Limousin. Eta sei talde selekzioak izango dira: Alemania, AEB, Portugal, Frantzia, Belgika eta

Kanada, hain zuzen ere. Lasterketa bik osatzen dute Bizkaikoloreak. Bat zapatuan izango da, Abadiñon, eta domekan bestea, Iurretan. Biharko lasterketa 16:00etan hasiko da, Zelaietako Gaztañodi kalean. 65 kilometroko ibilbidean, Miotari itzuli bi emango dizkiote lehengo. Hirugarrenean, Berrizera heltzean, Miotara barik herrigunera sartuko dira. Herria behetik gora zeharkatu, Bi-633 errepidera irten eta berriro bueltatuko dira Berrizera, Miota azkenekoz igo eta

Abadiñoko helmugara zuzendu aurretik.

Domekako proba —72 km— Iurretako Andaparape kalean hasiko da, 11:00etan. Txirrindulariek Zornotza aldera joko dute. Handik Arratiara sartu eta, Murtatzako gaina gaindituta, Usansolora helduko dira. Handik Iurretara bueltatuko dira. Gero, Zaldibarreraino helduko dira eta San Trokaz, Zengotita eta Duña gainak igaroko dituzte Iurretara itzuli eta Olaburu lalean helmugaratu aurretik.

Garaiko Asto Trail probaren hirugarren aldia nobedadeekin dator: korrikalariak osorik egingo dute Oizko gailurreria

Zapatu honetan mendi lasterketa eta mendi martxa egingo dituzte Garain. 200 parte hartzailetik gora batuko ditu

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Garaiko Asto Trail proba bueltan da. 2016ko eta 2018ko aldien ondoren, bihar egingo dute hirugarrena. Lasterketa ez ezik, mendi martxa ere egingo da. Antolatzaileek ekimen biak egun berean batzea erabaki dute, giro handiagoa sor-

tzeko. Eta deialdiak erantzun ona izan du. 200 parte hartzailetik gora batuko dira: 65 bat lasterketan eta 135 bat martxan. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, asko jota 300era heldu arte.

Mendi lasterketa 09:00etan hasiko da, plazatik. 26 kilometroko

ibilbidean —1.400 metroko desnibel positiboa— aldaketak daude. Aurtengo lasterketa erosoagoa da korrika egiteko. Nobedade nagusia da Oizko gailurreria osorik egingo dutela, Iturrizuritik eta San Kristobaletik Astoganaraino.

Bost emakumek baino ez dute eman izena lasterketarako, baina maila handikoak dira denak. Joan zen asteburuan munduko trail running txapelketan aritu den María Ordóñez da eurretari bat. Nerea Amilibia eta Andikona Albizuri berriztarra ere nabarmendu daitezke. Gizonetan, Walter Becerra da faboritoetariko bat.

Mendi martxa 09:05ean hasiko da. 16 kilometrokoa da. Amaieran, jan-edanerako aukera egongo da, Garaiko Triatloi Taldeko antolatzailen esanetan.



Korrikalari bi 2018ko Asto Trailean.



Gurutze Frades Gasteizko helmuga zeharkatzen. FOTORUNNERS

Urtebeteren barruan, Fradesek bigarren Ironmana

Iazko azaroan Mexikoko Cozumel proba irabazita agurtu zuen denboraldia triatloilari iurretarrak; joan zen asteburuan, Gasteizko Ironmanean gailendu zen

IRONMAN • J.D.

Irabazteko faboritoen artean zegoen eta ez zuen hutsik egin. Gurutze Fradesek Gasteizko Ironmana irabazi zuen joan zen domekan, korrikako saioan, maratoian, erakustaldia eman ez, ohi duen moduan. Irailean 42 urte egingo ditu iurretarrak eta sasoi betean jarraitzen du distantzia luzeko probetan. Gasteizkoa urtebetean irabazten duen bigarren Ironmana da, iazko azaroan Mexikon gailendu ostean.

Maratoi ikusgarria

Frades zazpigarren tokian irten zen Ulibarri-Gamboako urtegiko uretatik. Bizikletan hiru postu aurreratu zituen eta laugarren ekin zion korrikako tarteari. Hasiera-hasieratik sekulako erritmoa ezarri zuen eta maratoiko 18. kilometrorako lider ipini zen. Helmugan zazpi minutuko alde atera zion bigarren sailkatu Svenja Thoes alemaniarrari. Korrika hasi arte lider zihuan Els Visser herbeheretarrek osatu zuen podiuma.

Jokaldia

Kirolaren zailtasunak

Kirol guztiak dira praktikan konplexuak. Den-denek dituzte beraien zailtasunak eta hauek ulertzean gehiago erakartzen du kirolak berak. Kontua da, telebistaz ikusten diren partiduetan oso zaila izaten dela hauek antzematea. Kameraren bitartez ikusten dugun ikuspegiak zulo guztiak erakusten dizkigu eta, askotan, segurutzat jotzen dugu pilotaria ere perspektiba beretik ari dela lanean.

Niri askotan tokatu izan zait esku pilotaren zehaztasun hauek hitzez azaltzen saiatzea; gehienetan nire bikotekidearekin. Honek, “zergatik jo du pilota alde horretara aurkaria bertan bazegoen?”, “nola egin du hori, tantoa zabalean egina bazuen?” eta antzeko komentarioekin erantzun ohi die pilota-



Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Bada nire azalpen guztiei sinesgarritasuna kendu eta hauek kolokan jartzen dituen pilotari bat: Altuna

rien akatsei, eta orduantxe saiatzen naiz ikusarazten kantxatik bertatik ez dela telebistatik bezain erraza zulo horiek antzematea.

Bada, ordea, nire azalpen guztiei sinesgarritasuna kendu eta hauek kolokan jartzen dituen pilotari bat: Jokin Altuna. Amezketarrek jokatzeko duenean, honek pilota jo aurretik bikote-lagunak aurkari biak aurrean daudela eta atzealdea hutsik dagoela esanez gero, Jokinek tantoa atzean egiten du. Lehenengoak txokoan dagoen hutsuneaz ohartaraziz gero, bigarrenak bazter horretara bidaliko du pilota. Batak esan, besteak egin.

Inoiz begiak Altunaren belarrian ere zorroztu ditut harriduraren harriduraz, nire ondokoak esandakoak entzungailu baten bidez-edo entzuten ari ote den susmoarekin.

Nola ohartarazi, orduan, gure kirolaren konplikazioez, parean ia akatsik egiten ez duen pilotaria dena biribil egiten ikusten duzunean behin eta berriz? Espikazioetarako aukerarik gabe ez ezik, hitzik gabe ere uzten nau gipuzkoarrak gehien-gehienetan.

Bide batez, Altunak jokatzeko duenean sarri-sarri gogora ekartzen dudana moduan, behin gure amamak esana ekarriko dut hitzotara. Titin ez zitzaizola gustatzen zioen amamak, beti inor ez zegoen tokira botatzen zuelako pilota. Bada, arrazoibide horri jarraituz, ez zait iruditzen, dagoen lekuan dagoela, azken urteotan Altunaren zale egin zaigunik.



Jairik jai!

Zornotzako eta
Otxandioko jaiak



ETXETXO
INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

ATIKOA: 140 m². 4 logela eta 3 komun hidromasajearekin. Garaje bikoitza, trastelekua eta ganbara. **AUKERA. C.E.E=E**

IURRETA: 85 m². 3 logela, komuna, egongela-jangela eta sukalde jantzia. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 198.000 €.**

ZALDIBAR: 70 m². 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. Inbertsio moduan egokia. **C.E.E=E 105.000 €**

// ALOKAIUAN EROSTEKO AUKERAREKIN

ABADIÑO: 150 m²-ko terraza. Erdi berria. 94 m². Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 309.000 €**

ZALDIBAR: 80 m². Erdialdean. 2 logela, komuna, sukalde eta egongela. Terraza. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=F 175.000 €**

DURANGO: 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. Igogailua. **C.E.E=F 140.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

MIKELDI: 85 m². 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. **C.E.E=E 223.000 €**

ANBOTO: 3 logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 190.000 €**

MATIENA: 3 logela eta komuna. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=E 159.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: Apartamentua. Erdi berria. Bizitzen sartzeko moduan. Ganbara eta 2 kotxerentzako garajea. **C.E.E=D 230.000 €**

ABADIÑO: 88 m²-ko beheko solairua. 2 logela, komuna, egongela eta sukalde. Bizitzen sartzeko moduan. **135.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta ganbara. **C.E.E=G 335.000 €**

IBAIZABAL AUZUNEA: 3 logela eta 2 komun. Bizitzen sartzeko moduan. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=E 340.000 €**

LANDAKO: (autobus geltokia) 102 m². 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela. **350.000 € C.E.E=E**

DURANGO: Familiabakarrekoa. 4 logela eta 4 komun. 330 m². Lorategia. terraza eta solariuma. **615.000 €**

DURANGO: Apartamentua. Erdi berria. Logela, komuna eta egongela. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 142.500 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komuna, sukalde eta egongela. 15 m²-ko trastelekua. Aparkaleku pribatua. **C.E.E=F 130.000 €**

SAN FRANTZISKO: 3 logela, komuna, sukalde balkoiarekin eta egongela. Ikuspegi ederrak. Eguzkitsua. Garaje itxia aukeran. **C.E.E=E 180.000 €**

// GARAJEAK SALGAI

MENDIZABAL: Garaje itxia. **20.000 €**

JUAN MARI ALTUNA: Garajea. **16.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukalde, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatzeko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.

DURANGO: Askatasun etorbidea. 3 logela, sukalde, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

ABADIÑO

ABADIÑO: Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

BERRIZ

BERRIZ: 2 logela, egongela terrazarekin, sukalde eta komuna. Garajea eta trastelekua.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukalde eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

// LURSAILAK SALGAI

TABIRA: 1.445 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

// BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

// BULEGOAK ALOKAIUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

// GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

// LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

// LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 35 m²
1 logela
KALEBARRIA: 35 m². Egongela-sukalde, logela eta komuna. Hirugarren solairua igogailurik gabe. Etxe osoak kanpora ematen du. Erdialdean kokatua. Ganbara. Gas naturala. Inbertsio moduan egokia. ITE-a oraintsu pasatakoa.
79.000 € C.E.E: E

DURANGO 120 m²
3 logela
GASTEIZ BIDEA: 120 m². Egongela-jangela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Hego-ekialde-mendebaldea. Argitsua. Herriko irteeratik gertu. Egoera onean.
178.000 € C.E.E: E

DURANGO 92 m²
3 logela
MARTXOAREN 8KO: 2.008. urtean eraikia. Egongela handia, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta galeria. Igogailua. Etxe osoak kanpora ematen du (ekialde- mendebalde- hegoaldea) Argitsua. Herriko sarreratik gertu, zonalde berdeak. Ezin hobea. Garaje itxia eta handia.
308.000 € C.E.E: E

ABADIÑO 87,04 m²
3 logela
MUNTSARATZ: (BOE) Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Egoera onean. Etxe osoak kanpora ematen du, ipar-ekialdea. Ikuspegi ederrak. Zonalde berdea eta lasaia. Aparkatzeko errezatuzuna. Garajea eta trastelekua.
208.000 € C.E.E: Bidean

MATIENA
ERAIKUNTZA BERRIA: 91,05 m²-tik aurrera. 3 eta 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatzeko.
254.900 €-tik aurrera

ABADIÑO 318 m²
GAZTELUA AUZOA: Baserria. Beheko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kote-tokia, 78 m² erabilgarri dituena. 15.317 m²-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatzeko. Ingurune berdea eta lasaia. Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura.
440.000 € C.E.E: Bidean

// DURANGO

ANTSO EZTEGIZ KALEA: 2 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Ganbara. Igogailua. **LEHEN 190.000 € ORAIN 178.000 € / E.E.Z=F**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukalde eskegitokiagaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

BARRENKALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatzeko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

JOSEMIEL BARANDIARAN: Logela, egongela, sukalde balkoiarekin eta komuna. igogailua. garajea eta trastelekua. **300.000€ / E.E.Z=D**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

JUAN DE OLAZARAN: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

SAN FRANTZISKO: 3 logela, sukalde balkoiarekin, egongela eta komuna. Igogailua onartuta. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

// ABADIÑO

MUNTSARATZ AUZOA: Baserria. 2.750 m²-ko lur sailarekin. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Ganbara eta balkoia. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 350.000 E.E.Z=D**

// BERRIZ

BERRIZBEITIA: 2 logela, sukalde, despentsa, egongela eta komuna. Balkoia. **LEHEN 95.000€ ORAIN 85.000€ / E.E.Z=G**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeo baserria lurzorugaz. **290.000 €**

PADURE: 3 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. **LEHEN 125.000€ ORAIN 99.300 € / E.E.Z=F**

// GARAI

MOMOITIO AUZOA: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

// IURRETA

DANTZARI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela eta komuna. Igogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**

// IZURTZA

ELIZALDE AUZOA: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukalde, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**

// OTXANDIO

ZELAIETA AUZOA: Baserria. 40.355 m²-ko lursaila. 4 logela, sukalde, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ / ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

// ZALDIBAR

BOLATOKI KALEA: 2 logela, sukalde, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

// GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta lurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

// LOKALAK SALGAI / ALOKATZEKO

Informazio gehiago bulegoan.

Botikak

BARIKUA, 21 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 22 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

SANTAMARIA,
ERREKAKALE 6. - ELORRIO

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 23 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,
MURUETATORRE 2C - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 24 · 09:00-09:00

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 25 · 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 26 09:00-09:00

ETXEBARRIA,
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 27 · 09:00-09:00

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozaturgozotegia



Abuztuaren 2an Zaldibarko **Aitzol Abinek** 5 urte egiten ditu. Besarkada eta muxu pilo bat bere anaia Oier, guraso, aitite Valentin eta amama Mari Carmenen partez.



Zorionak, **Maier!** Uztailearen 21ean 14 urte egingo dozuzun egunien zoragarri pasau deizule. Maitte zaittugun danon partez mosu pillo bat.



Zorionak, **Alluitz!** 10 urte uztailearen 22an. Etxeakun urterik ederrenak eta zoriontsuenak! Segidu betiko moduen eta eutsi goiari! Hi haz hi tipue!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 14° / 25° ☁

ASTELEHENA ↓ 15° / 24° ☁

EGUAZTENA ↓ 13° / 24° ☁

DOMEKA ↓ 15° / 28° ☁

MARTITZENA ↓ 15° / 21° ☁

EGUENA ↓ 12° / 26° ☀

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Kappa

"Ardi-moztailearen lana bizitzeko modu bat da"

Joseba Ugalde baserriak baserri ibiltzen da ardiak moztzen. Aukeraturiko ofizioak mundua ezagutzeko aukera eman diola adierazi du zornotzarrak, baita beldurrak kentzeko aukera ere



Joseba Ugalde Olabarri
Ardi-ile moztalea
ZORNOTZA | 1981

ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Joseba Ugaldek Arantzazuko artzain eskolan hasi zituen ardi-moztaile izateko ikasketak, eta, gero, Puente La Reina de Jacan (Aragoi), Extremaduran eta Frantzia osatu ditu. Zeelanda Berrira era joana da, hangoak direlako "onenak ardiak moztzen".

Lan karga handiko sasoi izaten duzu hau, ezta?

Bai. Ardiek ilea mozteko premia dute. Artilea isolatzailea izanik, ardiek ez dute berorik pasatzen geldirik badaude, baina mugituz gero bai. Gainera, euria egiten badu hezetan guztia sartzen

zaie. Bestalde, eulirik ez sartzeko moztzen zaie ilea sasoi honetan. Euliak arrautzak uzten ditu ilean eta hazitako kokoek ardiaren okela jaten dute. Gero, udazken-neguan berriro moztzen zaie, ardiak aterpean daudenean. Garbiagoa eta higienikoagoa da, adibidez esnea batzerako orduan gazta egiteko.

Nondik mugitzen zara?

Ofizio hau bizitzeko modu bat da. Ez dago jakiterik noiz eta non egongo den lana, eta ziurgabetasun hori kudeatzen jakin behar da. Martxoan Euskal Herrian hasi nintzen, eta gero Frantziara joan nintzen, udan Alpeetan egoten diren

ardi merinoei ilea mozteko. Bueltan Euskal Herrian lan egin nuen be-

Behin teknika ikasita, bai ardia bai norbera lasaiago egotea lortzen da eta bien arteko konexioa lortuz gero erraz joaten da dena

rriro, maiatzean Sardinia joan aurretik. Eskozian ere egon naiz, ekainean, munduko ardi-moztaile txapelketan.

Orain Durangaldean zabilta.

Bai. Arrazolan, Berrizen, Zornotzan... Eta irailean Bearnera (Frantzia) joango naiz. Ardi latxaren antzeko ardi haiek Pirinioetan pasatzen dute uda, 2.000 metrotik gora. Irailean jaisten dira lehenengoak eta orduan moztzen zaie ilea. Azaroan Suitzara noa, eta abenduan Tourmalet ingurura (Frantzia). Sasoi lana da gurea, naturaren menpekoa.

Ardi-moztaile gutxi zaudete?

Bagaude batzuk. Ez da egia ardi-moztailearik ez dagoela, lehen baino gutxiago garen arren. Enpresari handiek eragin zuzena izan dute horretan: oso prezio baxuan zerbitzu oso eskaintzen zaio artzainari, baldintza ekonomiko baxuetan lan egiteko prest dauden ardi-moztaileekin. Gainera, ardi-harrapatzaileen figura –gero ardi mozteko pasatzen zirenak– desagertzen dabil. Ni horrela hasi nintzen. Batez ere, oso artalde handietan gertatzen da hori.

Zelakoa da zuen lana?

Gustuko izan behar duzu. Nahiko lan fisikoa da, hasieran batez ere. Teknikoa ere bai, jarrerak ikasi behar direlako. Ardi mozteko dantzarearen parekoa da, alde batekin. Behin teknika ikasita, bai ardia bai norbera lasaiago egotea lortzen da eta bien arteko konexioa lortuz gero erraz joaten da dena. Dena dela, kanpotik erraza dirudi, baina ondo ikasi behar da moztzen, ardiari minik ez egiteko.

Zeelanda Berriko teknika da onena?

Honetan luzaroan aritu gura baduzu, minik egin barik, bai. Ardiarentzat ere teknikarik onena da. Ez da lotu behar, ez da estresatzen... Eta ilea azkar moztzen ahalegintzen gara. Batzuk erdi lo egoten dira askatzen dituzunean.

Zenbat ardi moztzen duzu egunean?

Ardien arabera da, baina 100-200era erraz heldu naiteke. Durangaldean muturbeltza da nagusi, eta ile asko du.

Artile horri guzti horri erabilera ematen zitzaien lehen. Orain gutxiago.

Artilea jende askoren eskuetan dago. Petrolioa, osteria, lauren eskuetan. Hainbat erabilera duen arren ez da artilearen aldeko apusturik egiten.

Lauhortza

Markel Onaindia
Txabarri
Kazetaria



Cicely

Egunotan Doctor en Alaska (Northern Exposure) telesaila ikusten nabil, eta ume batek oparia zabaltzen duen eran hasten dut kapitulu bakoitza. Cicely herrixkan ez da gauza handirik gertatzen, baina aldi berean gauza harrigarri piloaz jabetzen da. Ohikoa da Cicelyko biztanle maitagarriak ikustea solasaldi existentzialak izaten, sinismen mitologikoak kontatzen, eta gertakari sobrenaturalak ulertzen saiatzen esaterako, lagun imaginario bat herrian integratzea edo pertsona bat hartz bihurtzea. Elkar babesten dute eta erabakiak komunitatean hartzen dituzte. Hori gutxi ez eta pertsonaje gehienak literaturzaleak dira; Chris Stevens irrati esatariak poemak, gogoetak eta ametsak zabaltzen ditu uhinetatik.

Ba, kontua da 90eko hamarkadan La2 katean botatzen zutenean ere ikusten nuela telesail hori, gauetan, amarekin eta amamarekin, eta konturatu naizela nire bizitzan eragina izan duela. Ohartu naiz Cicelyko herritarren antza duen jendea gustatzen zaidala, eta posible dela Stevensek zerikusia izatea kazetaritzarekiko dudaren pasioan. Seguruenik Doctor en Alaskaren erruz engantxatu nintzen gero Perdidos (Lost) telesailera. Akaso zuetako norbaitek pentsatuko du harrikada galanta dela hau guztia, baina sinestu gura dut bizitzak baduela zeozer magiatik ere, eta harritzen segitu nahi dut. Ez al duzue horrelakorik sentitu telesail bat ikusi ostean?

Uda honetan Cicelyra edo Perdidosera irla galdura joan gura nuke oportetean. Leku apartatu, magiko eta ederrak biak; Abascal gobernura helten bada arineketa joateko modukoak.

SAN ROKE BARRIA DURANGO

SALMENTA BULEGOA Astxiki kalea 1, Durango

Ludoteka

Gimnasioa

225.000€-tik aurrera+BEZ

Udazkenean obra hasiera

KALERATZE prezio bereziak

sukia 946 46 20 41
Zure etxean zaude. Estás en tu casa. www.sukia.com